

# IGELDOKO ORRI INFORMATIBOA



**Koronabirusa:  
Igeldo konfinamenduan**

## Kaixo herrikide!!!

Zer moduz daramazue konfinamendua? Badakigu egoera ez dela erraza eta ea Orri Informatibo honekin zertxobait entretenitzeko aukera duzuen behintzat!

Ale berezia osatu dugu. Herrian eta inguruan koronabirusaren kontua besterik ez dugun honetan, guk ere originalak izan eta gai horixe lantzea

erabaki dugu. Lehenengo orrietan herriko berriak bildu ditugu eta ondoren, erreportaje bat osatu dugu egoera hau Igeldon izaten ari den eragina azalduz. Horretarako, herriko zientzialari, osasun eta gizarte langileak, autonomoak, ostalariak, baserritarrak eta herritarrak elkarrizketatu ditugu. Pare bat iritzi artikulatu ere bildu ditugu.

## Udaberri Festarik ez da izango

Maiatzaren 15eko asteburuan zein egoeratan egongo garen ez daki inork, baina panorama ez dela askorik aldatuko aurreikusiten da. Hori horrela, Udaberri Festa antolatzeaz arduratzen den taldeak bertan behera uztea erabaki du San Isidro ospakizuna eta aurtengo egitaraua.

## Eskola Zaharreko proiektuarekin aurrera

Bilera ezberdinak egin ostean eskola zaharreko proiektuaren idazketa fasean sartu direla azaldu du Herri Kontseiluak. Eguneko zentroa eta jubilatuentzako gunea nolakoak izango liratekeen zehaztuko da proiektuan. Bestelako egitasmoek ere, hain zehaztuta ez dauden arren, proiektuan lekua izango dute, esaterako erabilera anitzeko gelek edo gazteentzako gunek. Hasierako asmoa maiztzean herritarrei proiektua aurkeztu eta ekainean Udalarekin partekatzea zen. Koronabirusak honetan ere eragina izango du eta seguruenik aurreikusitako epeak atzeratu beharko dira.

## Herri Kontseilua lanean

Bizi dugun egoera honetan, Herri Kontseiluak ezin du bere ohiko jardunarekin jarraitu, baina ahal duen moduan martxan ari da. Gainera, egoera honi aurre egiteko asmoz, hainbat ekimen ere eraman ditu aurrera; hala nola: Zaintza Sarea martxan jartzea, 70 urtetik gorakoei deitzea, maskarillak egiteko materiala eskuratzea eta banatzea...

Herriko dinamizatzaileak ere lanean jarraitu du etxetik. Momentuz, zeregina izan baitu. Hemendik aurrera, ordea, aztertzekoak dira zer egin, lan karga asko gutxituko zaiola aurreikusiten baitute.

### Ekintzak bertan behera

Martxoaren 13tik aurrera, Herri Kontseiluak antolatutako jendarteko ekintzak bertan behera geratu ziren: Mus eta Pala txapelketak, besteak beste. Kultur etxea ere itxita dago ordutik.

### Azokak baimentzeko babesa

Apirilaren 8tik aurrera, azokak debekatzea erabaki zuen Eusko Jaurlaritzak eta erabaki hori bertan behera uzteko eskatuz, manifestu bat plazaratu zen. Manifestuaren aldeko sinadura eman zuen Herri Kontseiluak. Apirilaren 11n Eusko Jaurlaritzak atzera egin eta azokak baimendu zituen.

## Zaintza Sarea martxan jarri da

Herri Kontseiluak "konfinamendu" hasieran laguntza eskean mezu hau bidali zuen:

«Herri gisa erantzuteko egunak dira. Berekoikeria eta lehiaren aurrean modu kolektiboan jarduteko egunak. Zaintza erdigunean jarri eta arduraz jokatzeko unea da. Koronabirusa ez zabaltzeko neurriak hartu behar ditugu eta aldi berean, herritarren beharrak asetu eta ongizatea mantentzea bermatu behar dugu. Horretarako, bolondres

sare bat osatzen ari gara behar duenari ahal den neurrian laguntza eskaintzeko. Kontziente gara, hurrengo egunetan behar ezberdinak egongo direla (erosketak egin, adin txikikoen zaintza, medikamentuak, bestelakoak...). Segurtasun neurriak hartuta eta osasun arloko profesionalen irizpideak kontuan hartuta jokatu dugu. Laguntzeko prest bazaude edo laguntza behar izanez gero jarri gurekin harremanetan».

14 herritar azaldu ziren laguntzeko prest. Orain arte laguntza eskean pertsona batek soilik deitu du, butano bonbona bat behar zuen eta erosi eta bere etxeraino eraman zitzaion. Herri Kontseilutik ere, 70 urtetik gorako herritarrak bizi diren etxeetara deitzeko erabakia hartu zen. Zer moduz zeuden galdetu eta laguntza eskaintzeko prestutasuna adierazi zitzaion. Oro har herritarrak oso eskertuta agertu dira jasotako laguntzagatik.

# San Pedroak, momentuz, aurrera doaz

Lanak bidaltzeko epea maiatzaren 3an bukatuko da.

Ezer antolatzeko egoera onena ez den arren, Jai Batzordeko kideak San Pedro jaien antolaketan murgildurik daude. Jaiekin aurrera jarraitzea erabaki zuten eta ekimen ezberdinak antolatzen ari dira. Esaterako, bertsolariak eta musika emanaldiak lotuta daude eta gainontzeko ekintzak antolatzeko ere herritarrekin hitz egiten ari dira.

Noski kontziente dira "koronabirusaren krisiak" erabat baldintzatuko dituela aurtengo jaiak eta litekeena dela jaiak bertan behera geratzea edota beste formatu batean egin behar izatea. Dena dela, udalarekin hitz egin ostean printzipioz antolaketarekin jarraitzea adostu zuten. Bestelako erabakirik hartuz gero, herritarrei lehenbai-

lehen jakinaraziko diete.

## Argazki lehiaketa martxan

Momentuz San Pedroak aurrera doazenez, argazki lehiaketa ere martxan jarri dute. Maiatzaren 3a baino lehen aurkeztu behar dira lanak.

Parte hartzeko arauak edo irizpideak gogorarazi dituzte:

- Gaia: Igeldorekin zerikusia duen argazki, marrazki, montaje edo collage.

- Argazkiaren tamaina 14,85\*21cm-koa izan behar du.

- Argazkia aurkezteko email honetara bidali behar da: [ttonttorro@gmail.com](mailto:ttonttorro@gmail.com)

Eta saria honakoa: festetako egitarauko portada eta 100 euro.

Animatu eta parte hartzeko gonbidapena luzatu dute.



## Herritar talde bat oihalezko maskarilak egiten

Igeldoko herritar taldetxo bat oihalezko maskarilak egiten ari da etxean. Herri Kontseiluarekin elkarlanean ari dira eta asmoa da, hasiera batean, 70 urtetik gorako herritarrei banatzea maskarila horiek. Materiala Herri Kontseiluak erosi du eta josten dakiten hainbat herritarrek horiek egiteko ardura hartu dute. Hori horrela, Herri Kontseiluak eskerrak eman nahi dizkie herritar horiei.

# Lehenbailehen irekitzeko asmoa du Kooperatibak

Egoera honetan arazoak sortu arren, aurrerapen ugari egin dituzte: langileen aukeraketa bukatuta, langile horiek martxan hasi dira eta falta diren obrak ere bukatzen ari dira, besteak beste.

Koronabirusaren krisia etorri zenean, irekierarako azken pausoak ematen ari zen Kooperatiba. Honek guztiak, aurrera egiteko zenbait arazo ekarri dizkiela azaldu dute, baina beste hainbat ataletan aurrerapenak egiten jarraitu dutela.

«Langileen aukeraketa buruturik, langile hauek martxan hasi

dira eta egiteko falta diren obrak ere azken astean burutzen ari gara. Produktuen hornikuntzan, ordenagailuaren programazioan eta espazioaren antolakuntzan ere aurrerapenak egin ditugu», azaldu dute.

Horiek horrela, irekiera data jarri ez badute ere, Kooperatibaren asmo irmoa da salmenta

gunea lehenbailehen irekitzea. «Koronabirusaren krisiak bertako kontsumo sarea indartzeko garrantzia are eta gehiago indartu duela uste dugu», azpimarratu dute.

Eta honakoa gaineratu: «Guztion artean, guztion onurarako, Kooperatiba ireki eta bide oparoa izan dezala!».

# Ikasturtea, ahal bezala

Gainerako ikastetxeak bezala, martxoaren 13tik Igeldoko eskola itxita dago ikasleentzat. Baina ikasturteak aurrera jarraitzen du. Egoera honek buruhauste ugari eragin dio eskolako komunitate osoari: irakasleei, ikasleei eta familiei. Elo Elizalde eskolako zuzendariak azaldutakoaren arabera, hasiera oso gogorra izan zen denentzat: «Denoi bezala, ezustean harrapatu gintuen egoerak. Ezjakintasun handia genuen nola jokatu. Gure lanaren oinarria umeekin dugun harreman zuzena da eta oso arrotza egin zitzaigun telematikoki aritzea lanean. Email pila bat, ordu pila bat... lehenengo hiru asteak eromena izan ziren».

## Umeak ondo egotea

Ezjakintasun horretan, konturatu ziren lehenengo astean etxerako lan pila bat bidali zituztela eta ume zein gurasoei lan karga handia eragin ziela. Hori horrela, argi dute benetan garrantzitsua umeen seguridade emozionala bermatzea dela eta gurasoei lasaitzeko mezua zabaltzen ahalegindu dira: «Lasai egoteko esan diegu. Ahal dutena egiteko. Irailean hasiko gara berriz, martxoan egongo bagina bezala, eta berreskuratuko dugu eman gabekoa».

## Astean behin, gela birtuala

Aste Santuko oporrak izan dira tartean, eta handik bueltan indar berrituta daudela gaineratu du Elizalde:

«Beste modu batean antolatuko gara. Classroom plataforma erabiliko dugu eta astean behin gela birtuala izango dugu ikasleekin. Asteko eskolako lanak ere astelehenetan bidaliko ditugu denok hobeto antolatzeko aukera izateko». Lehen Hezkuntzako ikasleentzako izango da hori, Haur Hezkuntzakoekin beste bide batzuetatik ari dira lanke-ta egiten. Eta denentzako egokia, oinarritzko gauzak lantzea dela gaineratu du: irakurri, idatzi, etxeko gauzetan parte hartu...

Familiak egiten ari diren lana eskertu gabe ere ez du utzi nahi izan Elizalde: «Eskerrak eman nahi dizkiegu familiei sekulako laguntza ematen ari direlako».

## Ikastaroak bertan behera

Ieltxoko ikastaroak antolatzeaz arduratzen den taldeak ikastaroak bertan behera uzteko erabakia hartu zuen apirila erdialdean. Honakoa adierazi dute: «Ikusita ziurrenik umeak ez direla eskolara itzuliko eta itzultzekotan ekainean izango dela, eta horrez gain, ez dagoela argi gure jarduera martxan jartzeko aukera noiz izango dugun, ikastaroak bertan behera uztea erabaki dugu. Pena handiarekin, baina gauden egoeran, egokiena horixe dela iruditzen zaigu». Hori horrela, eman gabe geratu diren klaseen dirua itzuli egin zaie familiei eta irakasleei eman gabe geratu diren klase horienatik erdia ordaindu diete.

## Irteera atzeratu eta udalekuak bertan behera uztea erabaki du Kixmik

Azkeneko hilabeteetan bizitzen ari garen egoera dela eta, Kixmik zenbait erabaki hartu behar izan dituela azaldu du.

Alde batetik, udaberrian egin ohi duten irteera egitekoak ziren apirilean. Lesakara joatekoak ziren aurtengoan, baina egoerak utzi ez dienez, irteera atzeratzea erabaki dute. «Ideia kurtso bukaeran egitea da, baina azkeneko egunetako gertakizunak ikusita, egoerara moldatu eta aukera dugunean egingo dugu», adierazi dute.

Bestetik, festei dagokienez, Jai Batzordeak festen antolakuntzarekin jarraitzen du eta

haurren eguna ere antolatuko da, printzipioz. Kasu horretan ere, ekintza aurrera eramango den ala ez jakiteko, momentuko egoerara moldatu beharko dela jakinarazi dute.


Eta azkenik, Kixmik aurtengo udaleku irekiak bertan behera uztea erabaki du. Honako azalpena eman dute: «Momentu honetan ezinezkoa zaigu begiraleen eta haurren segurtasuna bermatzea. Hurrengo asteetan aldaketarik egongo balitz, eta egoerak hobera egingo balu, Kixmik egoerara moldatzeko saiakera egingo du aukera ezberdinak aztertuz».

# Igeldo konfinamenduan

Koronabirusa Igeldon izaten ari den eragina isladatzen ahalegindu gara datozen orrietan. 15 herritarrei egindako elkarrizketak bildu ditugu, besteak beste.

Koronabirusa ezaguna zitzaigun urte hasieratik Txinatik, baina askok ez genuen espero halako eragina izango zuenik hemen. Italiara iritsi zen bai, eta hango egoera ikusita larritzen hasi ginen, Euskal Herrian ere kasu batzuk azaltzen hasi baitziren berehala. Otsailaren 28an egin zen publiko Euskal Herriko lehenengo kasua. Ondoren etorri ziren Bastida eta Txagorritxuko (Gasteiz) lehen kutsadura foku garrantzitsuak. Martxoaren 12an hartu zuen Eusko Jaurlaritzak lehenengo neurri nagusia: martxoaren 13tik aurrera, ikastetxeak itxita hamabost egunez. Ondorioz, Igeldoko eskola eta haurreskola itxi ziren. Eta hortik aurrera hasi ziren neurri berriak iristen: kultur etxeak, elkarteak, tabernak, nekazal turismoak, hotelak... itxita. Komertzio txikien jarduerak eten, eta herritarren konfinamendua, alarma egoerarekin batera. Apirilean, oinarritzko zerbitzuak ematen ez zituzten enpresa eta industria handiek ere gelditu egin behar izan zuten bi astez. Orain, apirilaren 26tik aurrera, umeez momentu batez kalera ateratzeko aukera dute. Maiatzarekin, pixkanaka deskonfinamendua hasiko dela aurreikusten da.

Koronabirusaren ondorioz hartutako neurriek eragina izan dute eta izaten ari dira mundu osoan zehar, eta Igeldon ere bai, noski. Guk, hemengo errealitatearen berri eman nahi izan dugu Orri Informatibo honetan. Asmo horrekin, Igeldoko herritar desberdinei elkarrizketak egin dizkiegu. Osasungintzan aritzen diren herritarrekin ere hitz egin dugu eta gertatutakoa hobeto ulertzen laguntzeko, herriko biologo baten azalpenak jaso ditugu. Horrez gain, iritzirako tartea ere egin dugu.



Argazkian, Iker Dorronsoro trikitixarekin eta Maider Illarramendi panderoarekin.

## Egunero, Kaxkoa girotzen

Euskal Herriko txoko eta herri askotan bezalaxe, Igeldoko kaxkoan bizi diren herritarrak ere txalo egitera ateratzen dira (Babes Ofizialeko Etxeen auzunean).

Itxialdiaren lehenengo egunetan, iluntzeko 20:00etan, osasun langileak omentzeko, txaloak jotzen zituzten eta kazerolada deituta zegoen egun batean kazueta eta zartagi batzuk ere bai. Egun batzuk beranduago, martxoaren 25ean, instrumentuak etxeko leiho eta balkoietara atera zituzten.

Lehenengo Iker Dorronsoro animatu zen trikitixarekin eta June Gonzalez, Khloe Dorronsoro eta Unax Diez panderoarekin. Egunez egunera, bizilagunak animatzen joan ziren. Mehmet Sonmezek biolontxelo jo zuen eta trikitixarekin batera, *Txoriak txori* abestia jo zuten. Orditik, Maider Illarramendi ere animatu da trikitixa eta panderoa tartekatuz. Gurutze eta Jaione Dorronsoro, Maddi Agirre eta Irati Imaz ere animatzen dira panderoarekin.

Erromeriako 3 edo 4 pieza jotzen dituzte, kalejira batekin bukatzen dute herritarrek txaloak joz eta

tarteka irrintziren bat ere bota ohi dute. Trikitixa eta panderoari dantzariak laguntzen diote, fandango eta arin arinak dantzatzeko dituztelarik.

Bizilagunen erantzuna oso ona izan ohi da egunero. Asko, zain egoten dira balkoietan zortzietarako bi minutu falta direnean.

Pianoa entzuteko aukera ere izaten da. Mehmet Sonmezek larunbat-igande eguerditan eta arratsalde batzuetan jotzen baitu. Momentu hauetan ere bizilagunak balkoietara ateratzen dira, batzuk aperitiboa hartzera eta guzti. Beste egun batzuetan ere musika jartzen du beste bizilagun batek, bafleak terrazara atera eta kaxkoa girotzen du.

Iluntzeko 20:00etako txaloekin, osasun langileei eskertzeko asmotan ateratzen hasi baziren ere, gerora beste helburu bat ere gehitu zaio ekintza honi. Bizilagunei bizipoza eskaini eta beraien artean bi hitz egiteko aukera ematen die, denok etxean sartuta gauden egoera zail honetan. Itxialdi honetako eguneko momentu polit bezala hartzen dute eta bihar arte esanez agurtzen dute elkar.

# I. ATALA: ZIENTZIALARI, OSASUN ETA GIZARTE LANGILEAK

ARANTXA TXINTXURRETA BIOLOGOA:

## «Lortu du gizakitik gizakira igarotzea; hori arrakasta itzela da birusarentzat»

Arantxa Txintxurreta Biologian lizentziatua da, ekosistemak adarrean, baina azken urteetan osasun arloan egin du lan. 2018an EHUko Osasun Publikoa masterra amaitu zuen. Koronabirusa hobeto ulertzeko azalpenak eman dizkigu.

### Hasteko, azalduko zeniguke zer den birus bat?

Proteina-geruzek babesten duten material genetikoa da birusa. Oso gauza sinplea; hain da sinplea, biziduna den ala ez eztabaidan jarraitzen duela komunitate zientifikoak. Izan ere, material genetikoa badu, baina bizidun baten zelula behar-beharrezkoa du material horretatik birus belaunaldi berria sortzeko. Hau da, lehengaia badu, baina ez tresneria lehengaia prozesatzeko; eta tresneria hori beste bizidunetan bilatzen eta aurkitzen du.

Zelula erasotu duenean, bere jabe egiten da, eta bere esanetara jarduten du. Inkubazio-aldian gaude. Amaieran, birusaren kopiak zelulatik ateratzen dira. Birus horiek zelula berriak erasotuko dituzte, eta, organismoaren kanpora ateratzeko aukera baldin badute –doministikuaren edo eztularen bidez, adibidez-, beste norbait kutsatuko dute. Kutsagarritasun-aldian gaude.

Eta birusek hori guztia egiten duten bitartean, organismoaren immunitate-sistema martxan jartzen da, birusari kontra egiteko: geruzetan dituen proteinak bereak ez direla konturatzen da, eta horien kontrako antigorputzak sortzen ditu. Gaixoa

sendatzen denean, birusik ez da geratuko bere gorputzean\*, baina antigorputzak bai, eta birusak itzultzeko ausardia balu, gorputza prest egongo litzateke borrokarako.

*\*hori soilik da egia RNA birusekin; DNA birusak betiko geratzen zaizkigu gorputzean, esaterako herpesa.*

“Zientzia aldizkarietan argitaratzen ari diren lanak doan eta oso azkar argitaratzen dituzte. Borondatea ikusten dut jakintza ahalik eta azkarren eta ahalik eta ikertzaile gehienek eskura iristeko”

### Zer dakigu zehazki birus honi buruz?

Severe acute respiratory syndrome coronavirus 2 izena jarri diotela, motxian, SARS-CoV-2, eta CoVid19 gaixotasuna sortzen duela, arnas-bideetako gaixotasun bat. Koronabirus familiako birusa da, RNA forman geratzen du material genetikoa, eta proteinaz eta azukrez osatutako geruzek inguratzen dute. Azukre-

proteinazko geruza horiek egiten duten marrakia koroa baten antza duelako deitzen zaie koronabirusak, eta egitura horiek, hain zuzen, egiten dute pisutsu samarra izatea. 200 nanometro inguru neurtzen ditu, eta, beraz, ez da oso txikia. Elgorria sortzen duen birusak, adibidez, oso txikia eta arina denez, gaixotik 10 metrora arte dagoen edonor kutsa dezake.

Birus andui hau ez da gizakian orain baino lehen aurkitu. Koronabirusak animalietan zirkulatu ohi duten birusak dira, eta horietako gutxi batzuk gizakia ere infektatzen dute; katarroa eta goi arnas aparatuko infekzioak sortu ohi dizkigute.

1-14 egun bitarteko inkubazio-aldia du eta sintomak hasi baino egun bat lehenagotik 7 egunetara arte kutsa daiteke (gaitza larriki pasa dutenak bi astera arte izan daitezke kutsakor; halere, iturriaren arabera egun-kopuruak zertxobait aldatzen dira).

### Zientziaren aldetik, zer da gertatzen ari dena?

Batetik epidemiologiaren aldetik eta komunitatearen osasuna babesteko hartzen ari diren neurri ez ohikoak daude, eta pila bat ikasten ari gara. Baina, bestetik, zientzia-komunitate-



an ere ez ohiko egoera bizi dute. Zientzia aldizkarietan argitaratzen ari diren lanak, adibidez, doan eta oso azkar argitaratzen dituzte, egoera arrunt batean hilabeteak pasatzen dira zerbait argitaratzerako. Borondatea ikusten dut jakintza ahalik eta azkarren eta ahalik eta ikertzaile gehienen eskura iristeko.

Bestalde, zientzialari askok haien ikerketak alhora utzi behar izan dituzte, koronabirusagatik, eta hori pena handia da.

### **Gripearekin konparatuz, zergatik halako neurriak hartu behar izan dira?**

Bai gripea sortzen duen birusa eta bai Covid19a sortzen duena pertsonatik pertsonara kutsatzen dira listu-tantatxoaren bitartez, edota tantak dituen gainazala ukitu eta arnas bideetara sartzean; gainera, gripeak eta CoVid19ak badute sintometan antza. Baina birusak desberdinak dira eta portaera desberdina dute. Adibidez, *influenzak* (gripea sortzen duen birusak) 1-3 egun artean behar du inkubatze-aldia eta kutsagarritasun-aldia, berriz, 3-5 egunekoa.

Gripea urtero agertzen zaigu,

“Ea txertoa lortzen duten, horixe baita gaixotasun bat komunitatean ez hedatzeko dugun tresna prebentiborik indartsuena”

garai beretsuan, eta prest gaude; ospitaleak prest egoten dira, gizartea prestatzeko kanpainak egiten dira... Oraingo birusak ez du abisu handirik eman, eta oso azkar hedatu da. Gainera, Covid19rako ez dugu txertorik, eta berria denez, inor ez dago immunizatuta, hortaz, edonor kutsa daiteke, eta, dirudienez, gripearean birusa baino errazago kutsatu ere (oraindik ikertzen ari dira hori). Arrazoi horiek guztiengatik zabaldu da gaitza mundu osora eta hartu behar izan dira osasun publikoko neurri gogorragoak oraingoan, gripearekin alderatuta.

### **Birus honen atzean, naturaren eboluzioa dago edo gizakiaren eskuhartzea?**

Edozertan, eboluzioa eta gizakiaren eskuhartzea ekidin ezinak dira, ez duzu uste? Birusak tantatxoaren bidez kutsatzea, eboluzioan zehar

lortu du; listu tanta horietan orduak edo egunak (gainazal-motaren araberak) bizirik beste inolako zelularik gabe iraun ahal izatea, eboluzioan zehar lortu du. Eta gizakiak gaixorik zegoen animalia batekin harremanik izan ez balu ez zen hau guztia gertatuko, agian.

Baina ez eboluzioa eta ez gizakiaren eskuhartzea ez dira gaixotasun berri honen erantzule, nire ustez. Birus hau animalia basatietan ezagutzen zen, eta orain gizakira –beste animalia bat– “salto” egin du, eta lortu du gizakitik gizakira igarotzea: hori arrakasta itzela da birusarentzat.

Gaixotasunak hedatuz banakoak hiltzea, lehengaiengatik borrokatzea bezalaxe, populazioen dinamikaren parte naturala dira, eta populazioak erregulatzeko balio izaten dute. Agian, gizakia ez dago Naturatik uste duguna bezain urruti.

### **Noiz pasako da birus honen eragina?**

Birusa pertsonetan bizi da, eta pertsonak behar ditu bizitzeko, bakkarik ezin baitu bizi. Hortaz, pertsonetatik guztiz ezabatzea oso oso zaila izango da. Orain arte, baztanga (gatzelaniaz, viruela) da gizakiak ezabatzea lortu duen gaixotasun bakarra. Kutsagarritasuna murriztean dago gakoa, gaixotasuna komunitatean menderagarria izatea nahi badugu. Horretarako ondo ikertu beharko da birusaren portaera, eta ea txertoa lortzen duten, horixe baita gaixotasun bat komunitatean ez hedatzeko dugun tresna prebentiborik indartsuena.

### **Txertoa eskuratzeko urtebete edo gehiago beharko dela irakurri dut... Eta datorren udazkeneguan zer gertatuko zaigu?**

Zientzia aldizkaritan irakurri dudanez, ehun bat farmako eta txerto ari dira frogatzen, baina guztiek hainbat froga pasa behar dituzte komunitatean modu zabalean erabili baino lehen, beraz, bai, luze jo dezake txertoa normalizatzeak.

Apirilaren 14an, Science aldizkarian etorkizunari buruzko artikulu interesgarri bat argitaratu zuten. Hartan, birusaren kutsagarritasuna nolakoa izango den aurreikusten saiatu dira, pandemia ondorengo garairako proiektio batean; balizko egoeratan oinarritu dira, posibleena den ondoriora iristeko. Haren arabera, hurrengo urteetan SARS-CoV-2aren agerraldiak gertatuko dira negu partean, nahiz eta ez oraingo olatu hau bezain indartsuak. Dirudenez, gure artean distantzia mantentzearena... noizbehinka hartu beharko dugun neurria izan daiteke, aurrerantzean. Argi samar daukadana da, epidemiologikoki zaintzen diren gaixotasunei (botulismoa, dengea, gripea, kukutxeztula...) gehituko zaiola berri hau; oker egon naiteke.

Beste artikulu batean, berriz, koronabirus honek mutazio-tasa txikia duela irakurri dut. Hori ona iruditu zait, esan nahi duelako birusa gutxi aldatzen dela denborarekin, eta gure immunitate-sistemak errazagoa izango duela birusa beretzagutzeko eta erasotzeko. Beraz, gaixotasunak izango duen intzidentzia immunizatu-kopuruaren mende dago, neurri batean.

### **Maskarila eskasiagatik, horiek egiteko deialdiak egin dira eta jendea prest azaldu da Igeldon. Etxean egindako maskarilek balio al dezakete zerbaitetarako?**

Lehenik eta behin, komeni da gauza bat argitzea: oraingo ez dago frogarik musukoek birusaren infekzioetik libratuko zaituela adierazteko. Hori ez dut nik esaten, Gaixotasunen Prebentziorako eta Kontrolerako Europako Elkarteak (ECDC) baik. Horregatik, normalki musukoa gaixoak jartzen du, gainerakoak gaixotu ez daitezen, edo, hobeto esanda, gaixoak gainerakoak gaixotzeko duen arriskua txikitzeko. Orduan, gaixorik ez bagaude, ez gaituzte musukoa eramatera behartuko? Gure artean sintomarik gabeko gaixo asko dagoelako susmoa badu-

te, erabaki dezakete halakorik, toki batzuetan egin duten gisan. Hala ere, oraingo dakigula, sintomarik ez dutenek birusa transmititzea zaila da; ez ezinezkoa.

“Koronabirus honek mutazio-tasa txikia duela irakurri dut. Hori ona iruditu zait, esan nahi duelako birusa gutxi aldatzen dela denborarekin”

“Balizko egoeratan oinarrituta, hurrengo urteetan SARS-CoV-2aren agerraldiak gertatuko dira negu partean, nahiz eta ez oraingo olatu hau bezain indartsuak”

Oihalezko musukoek balio al dute gainerakoak ez kutsatzeko? Oraingo ez dago nahikoa frogarik hori baieztatzeko. Hala ere, EEBBko CDCak (Gaixotasunak prebenitzeko eta kontrolatzeko Elkarteak) gomendatzen du etxean egindako musukoen erabilera, besterik ez dagoenean. Hobe omen da hori, ezer baino. Erabil daitezke etxetik atera behar badugu, adibidez, erosketak egitera. Baina, osasun-langileek haien lanean ez dituzte erabiliko. Eta erabiltzekotan, ondo; gaizki eginez gero, babestea baino kutsatzea lortuko dugulako.

Igeldon josten ari garen musukoek bi oihal daramatzate eta horietako bat inpermeablea... ez dago oihal homologaturik, baina itxura ona dute!

### **Kalera ateratzean komeni al da maskarila eramatea ez kutsatzeko edo beste neurri batzuk hartuta nahikoa da?**

Osasunaren Munduko Erakundearen (MOE) arabera, norbera babes-

teko modurik eraginkorrenak hiru dira: 1) eskuak maiz eta ondo garbitzea, xaboiarekin edo alkohol disoluzioarekin; horrela, gure eskuetako birusak hil egingo ditugu, eta birusik gabe gaixotasunik ez dago. 2) gutxienez metro bateko distantzia mantentzea gainerakoe-kiko; horrela, inor gaixorik balego, birusak ez lirateke listuaz guganaino iritsiko. 3) aho-begi-sudurrik ez ukitzea, kalean gaudenean; birusak zituzten sagarra, maratila, poltsa, kartera... ukitu baditugu, ez ditugu gure organismora sartuko. Neurri horiek hartuta, musukoa jar daiteke, baldin eta nola egin badakigu.

MOEak beste neurri bat ere aipatzen du, gaixotasuna saiheste-ko; ongi informatuta egotea. Horretarako gomendatzen dizuet MOEren web gunea, ECDCrena (European Centre for Disease Prevention and Control), Eusko Jaurlaritza-Osakidetzarena, edota edozein zientzia-aldizkari eta zientziaren dibulgatzaileen guneak.

### **Honetatik guztitik zerbait positiboa atera al duzu?**

Bai, noski.

Arlo pertsonalean, komunitatearen sentimendua indartsu ikustea gustatzen zait.

Osasunaren aldetik, espero dut hemendik aurrera kontzientzia handixeagoa izatea, gaixotasun kutsagarriekiko; adibidez, gaixorik baldin bagaude, etxean gelditzea edo musukoa erabiltzea, immunodeprimituengana ez hurbiltzea, edota txertoa hartzearen abantailak ikustea. Gainera, eskuak maiz eta ongi garbitzeko hartu dugun ohiturak beste gaixotasun batzuk erraz ez hedatzea lagunduko du.

Zientziaren aldetik, gizartea kon-turatzea zientzia bera zein beharrezkoa den, eta ea horrek diru gehiago sartzen duen.

Eta, azkenik, ekologiaren aldetik, bake ederra eman diogu planetari, auto, hegazkin, industria eta abar-rak murriztean!



**AINITZE IRAOLA ERIZAINA:****«Nire lana behar bezala egiterik izango ez nuenaren beldur nintzen»**

Ainitze Iraola erizaina da Mendaroko Ospitalean. Koronabirusarekin kutsatutakoekin lehenengo lerroan ari da lanean.

**Berez maternoan aritzen zara, baina orain koronabirusarekin kutsatutakoekin ari zara lanean.**

Bai, esan bezala, ni Mendaroko Ospitaleko materno eta traumatologia zerbitzuan aritzen naiz lanean, baina koronabirusa dela eta materno unitatea ospitaleko beste alderdi batera pasa dugu eta koronabirus pandemia hasi zen momentutik orain arte, koronabirusa duten, izan dezaketen edota beste patologiarekin bat duten gaixoekin ari gara lanean.

**Zeintzuk izaten dira zuen protokoloak lanerako orduan?**

Ospitalera sartzerako momentuan esku garbiketa egiten dugu hidrogelarekin eta maskarila kirurgikoa jartzen dugu. Ondoren uniformea jantzi eta unitatera joaten gara. Koronabirusa ez duten gaixoekin baldin bagaude lanean babes neurri nagusiak, maskarila kirurgikoa, esku garbiketa eta eskularruak dira. Aldiz, koronabirusa izan dezaketen edo duten gaixoak badira, uniformearen gainean EPI babes neurria jartzen dugu, honek berarekin dakarren protokolo guztiarekin.

**Ondo informatu eta prestatu zaituztetela iruditzen zaizu edo hutsuneak ikusten dituzu?**

Egia esan, egunero informatzen gaituzte bai koronabirus protokoloen aldaketen inguruan, baita unitatean ematen ari diren aldaketen inguruan ere. Eta bestetik, EPlak nola jantzi eta nola erantzi ikasteko formakuntza eman ziguten. Egunerokotasunean



ikasten joan gara nola jantzi eta nola erantzi, praktika bidez ikasten baita ondoen nola egin.

**Mendaroko ospitalean zenbat kasu daukazue eta noiz agertu****zen lehenengoa?**

Gaur (apirilak 22), Mendaroko ospitalean 15 kasu daude eta Eibarko ospitalean 54, baina Mendaroko ospitalean pandemiaren puntu gorenean gutxi gorabehera 34 ingu-

ru kasu zeudela esango nuke. Lehendabiziko kasuak martxoaren erdialdean diagnostikatu ziren, lehen hiru ingresatuak martxoaren 18an izan genituelarik.

### **Ospitaleratuak adinekoak dira edo aurretik patologiaren bat zutenak, edo denetik dago?**

Pandemiaren hasieran, ingresatuak zeuden gaixoak adinez gazteak ziren eta gehienegok patologiaren bat zuten aurretik. Momentu honetan kasu horietakoren batek ingresatua jarraitzen du edota Donostiako Ospitalera lekualdatu dute, baina orokorrean denak etxean eta ondo daude. Orain ingresatuak dauden gaixoak aldiz, adinez helduagoak dira eta gehienak adinekoen egoitzetatik deribatuak izan dira eta pronostikoa ez da hain ona.

### **Fase desberdinak biziko zenituzte-la pentsatzen dut. Orain agian lasaiago zaudete?**

Bai, orain lasaiago gaude. Hasiera batean unitatean genuen urduritasuna, ezjakintasuna eta errespetua orain beste modu batean kanalizatzen ikasi dugu. Ospitalea egoerara egokitu behar izan da, ospitaleko kontsultak itxi zituzten eta bertako langileak ospitalizazioko gunean egokitu zituzten, urgentzia pediatrikoa ere beste gune batera aldatu zuten nagusien urgentzietatik banatua egoteko, eta lehenago esan bezala, materno unitatea ere ospitaleko beste alderdi batera pasa zen hasieratik.

Egia da pandemiaren momentuaren arabera gure unitatea gaixo desberdinak tratatzeko erabili izan dela. Ondorioz, protokoloak aldatzen joan dira eta gu ere horietara egokitzen joan gara; beldurrak atzean utziz, lankideon artean elkar babestuz, elkar lagunduz eta lantaldea indartuz.

### **Material falta ere baduzue edo izan duzue? Ze egoeratan zaudete? Hasiera batean gehien falta zitzaiz-**

kigun materialak "hidrogela", maskarilak eta esku larruak izan ziren. Momentu honetan, batak falta ditugu gehienbat. Batak berrera-biltzen dira eta garbitzera bidaltzen ditugu gehiagotan erabili ahal izateko. Izan ere, gehienez bata berdina 3 aldiz erabili baitaiteke.

“ Herritarren portzentai handi batek sintomarik izan ez arren, gaixotasuna pasatu izana aukera bat da.

Horregatik, testak eta antigorputzen analitikak egin beharko liriateke: bai osasun langileei bai herritarrei ”

“ Orain, ‘astronauten trajea’ normaltasunez janzten dut ”

### **Zure kasuan, nola ari zara lanean? Turnoak, orduak... Aldaketarik?**

Nire txandek berdin jarraitzen dute: goizez 8:00etatik 15:00etara, arratsalde 15:00etatik 22:00etara edo gauz 22:00etatik 8:00etara. Astearren errotazioaren arabera.

### **Momentu hauetan, lanera joateaz zer da zuretzat?**

Koronabirusa zuten gaixoekin lanen hasi ginenean lehenengo egunetan errespetu handiz joaten nintzen lanera. Nire lana behar bezala egiterik izango ez nuenaren beldurrez, ezjakintasunaren ondorioz. “Astronauten trajea” jarri nuen lehenengo egunean nuen beldur sentsazio hori dagoeneko ez dut sentitzen. Lehenengo aldiz erizainaren uniforme jarri nuenean bezala, orain “astronauten trajea” normaltasunez janzten dut.

Oso momentu gogorra izaten ari da. Hala ere, egoera zail honek bere

momentu hunkigarriak ere baditu. Jendeak bere alta medikua jasotzen duenean ikaragarri pozten gara denok eta unitatetik irteten direnean txaloka agurtzen ditugu. Gaixo gehienek familiaren bisitarik eduki ezin dutenez, bideo deien bidez komunikatzen dira senideekin eta bideo dei horietatik ere alde positiboa ateratzen saiatzen gara.

“Astronautaren trajearen” atzean betiko erizaina dago lanean, gaixoei laguntzen eta beraientzat sostengu puntu hori izaten jarraitzen.

### **Lanetik bueltan, etxeako kutsatuko dituzun kezka izaten duzu?**

Egia esan bai, nire kezken artean etxeako kutsatzea dago. Hau ekiditeko higie eta babes neurriak hartzen ditut bai ospitalean, ospitaletik ateratzean eta etxera sartzean. Etxera iristean oinetakoak terrazan utzi eta arropa zuzenean garbigailura botatzea, dutxatu eta etxea maiz desinfektatzea (gehien bat komuna), hauek dira hartzen ditudan babes neurriak, besteak beste.

### **Osasungintzan kolapsorik ez egoteko, etxean geratzeko eskatu zaigu. Neurria momentu egokian hartu zen edo berandu...?**

Nere ustez neurria berandu hartu da. Lehenago hartu izan balitz ez ziren hainbeste kasu egongo. Bestetik, iruditzen zait ospitaleetan materialen gestioa ere ez dela ondo egin eta langileekiko babes neurriak ere ez direla ondo hartu momentu batzuetan. Egun, oraindik, osasun langileoi testak egiteko zain gaude. Gure beldurretako bat etxeako kutsatzeaz gain koronabirusa izan dezaketen edo beste patologia bat duten gaixoak kutsatzea ere bada.

### **Eta orain zer? Txarrena pasa dela eta pixkanaka deskonfinamendua hasiko da. Hala ere, kutsatzeko arriskua badago oraindik, ezta? Nola jokatu beharko genuke?**

Oraindik kutsatzeko arriskua altua

da. Egutero ari gara kasu berriak diagnostikatzen hauen kopurua beherantz baldin badoa ere. Babes distantzia mantentzea beharrezkoa izango da denbora luze batean, eskuak maiz garbitzen jarraitu beharko dugu eta maskarilak erabiltzen, hauekin kutsatzeko aukera asko murrizten baita.

**Kutsaturik gauden edo ez jakiteko testak ez dira hainbeste egin hemen. Herritarren gehiengoak pasako zuela iruditzen zaizu ala oraindik pasatzeko egongo da gehiengo?**

Seguruenik herritarren portzentai handi batek sintomarik izan ez

arren, gaixotasuna pasatu izana aukera bat da. Hori ongi tasatzeko iruditzen zait testak eta antigorputzen analitikak egin beharko liratekeela: bai osasun langileei eta baita herritarrei ere.

**Pandemia honen ondorioz, gure osasungintza publikoa gehiago baloratu eta hobeto prestatzeko balioko duela iruditzen zaizu?**

Bai. Iruditzen zait, pasatako guztia-  
ren ondorioz osasungintza publikoa gehiago baloratuko dela edo hori pentsatu nahiko nuke behintzat.

**Zerbait positiboa atera al duzu honetatik guztitik?**

Nire lanaren alderdi positiboa modu batean edo bestean gaixoei laguntzeko aukera izatea da eta horregatik gustatzen zait hainbeste gure lana. Pandemiaren fase hone-  
tan, momentu askotan gaixoen erizainak ez ezik, bidelagunak ere izan gara: haiekin barre eta negar egin dugu, bideo deiak egiteko laguntza eman diegu, ariketa fisikoa egiten lagundu diegu eta psikologo lanak ere egin ditugu.

Gaixoen eta beraien familien esker onarekin geratzen naiz. Esker on hau izan da pandemiaren aurrean motorra martxan mantentzen lagundu digun arrazoi nagusietako bat.

**AINHOA ESTEBAN - OIARTZUNGO ZAHARREN EGOITZAKO LANGILEA:**

«Aurreko egoeratik gehien behar dutena senideekin egotea da»

Ainhoa Estebanek Oiartzungo zaharren egoitzan egiten du lan, osasun mentaleko arazoak dituzten pertsonekin.

**Nolako egoera bizitzen ari zarete lanean?**

Egoera zaila izaten ari da eta kezka handiarekin bizitzen ari gara. Denbora aurrera doa eta kasu positiborik ez daukagunez, pozik gaude. Egutero egiten dugun lan-  
gatik esker ona emanez mezu asko jasotzen ari gara, esaterako enpre-  
sako zuzendaritzatik, Oiartzungo herritarrak, erabiltzaileen senideak, gure senitartekoak eta lagunak... Honek aurrera jarraitzeko indarra ematen dit.



**Ze aldaketa egon dira zure egunerokotasuneko lanean koronabirusaren eraginez?**

Aldaketak izan ditugu. Batez ere higie-ne neurriak areagotu behar izan ditugu, esku garbiketa esaterako. Lanera sartzean ondorengo neurriak hartzen ditugu: sartu bezain laister eskuak ondo garbitu, ondoren kaleko erropa eta oinetakoak aldatu eta bertako erropa jarri, tenperatura hartu (37º gehiago izanez gero ezin dugu lanik egin) eta azkenik maskarila jarri. Neurri guzti hauek bete gabe ezin gara lanean hasi. Bestetik, egunero bilerara egiten dugu langile eta erabiltzaileen osasun egoerari jarraipena egin eta protokoloak eguneratzeko.

Ekintza orokorrak nahiz kalean egiten genituenak bertan behera geratu dira. Orain solairu bakoitzean antolatzen ditugu ekintzak.

Langileak soilik egon gaitezke eraikinean. Egoera berezi honetan senideek ere ezin izaten dute sartu.

**Zuretzako lanera joatea zer da momentu honetan?**

Egunero egiten dudan lanaz harro nago eta asebeteta sentitzen naiz egiten dugunagatik. Bestetik, gizar-tean gure lana gehiago baloratzen ari dela esango nuke.

**Adinekoak arriskuko pertsonak dira. Kutsatuz gero, ondorio larriak izan ditzakete. Behin lanetik aterata, presio hori sentitzen duzu, zorrotasun gehiagorekin ibili beharra ez kutsatzeko?**

Presio pixka bat bai, baina ez enpresak jarritakoa, nik nire buruari jarritakoa baizik. Azkenean, gu gaixotzen bagara nor joango da egoiliar-rrak zaintzera? Kanean OMSek (Organización Mundial de la Salud) markatutako irizpideak mantetzen saiatzen naiz, hala ere, ez da erraza.

**Bestalde, lanera joateko aukera edo beharra izan duenetako bat zara. Kutsatuko ote zaren eta etxe-**

“ Langileak soilik egon gaitezke eraikinean.

Egoera berezi honetan senideek ere ezin izaten dute sartu ”

“ Azkenean, gu gaixotzen bagara nor joango da egoiliar-rrak zaintzera? ”

“ Egunerokotasuna ahalik eta normaltasun handienarekin bizitzeko ahalegina egiten dute. Hala ere, batzuei egoera ulertzea nekeza egiten zaie eta egunero gogorarazi behar izaten dizkiegu hartu behar diren neurriak ”

“ Egoera honek erakutsi digu osasuna herritarron behar nagusietakoa dela, beraz beharrezkoa da inbertsioak egin eta bertako langileen eskubideak bermatzea ”

**koak kutsatuko ote dituzun kezka-rekin bueltatzen zara lanetik?**

Nere beldur handiena lankotian edota etxean gaixotasuna sartzea

da. Horregatik lantokian ditugun higie-ne neurriak etxean betetzen saiatzen naiz.

Frogak egingo dizkigutela aipatu zuten. Oraingoz egin ez ditugun arren, egindakoa eta emaitzak izandakoa lasaiago egongo naiz.

**Bertan dauden egoiliarrek nola bizi dute egoera?**

Covid19aren inguruan gehiegi ez pentsatzen saiatzen dira (nahiz eta ia ezinezkoa izan). Egunerokotasuna ahalik eta normaltasun handienarekin bizitzeko ahalegina egiten dute. Okerren eramaten dutena kalera ezin atera ahal izatea da.

Dena dela, batzuei egoera ulertzea nekeza egiten zaie. Egunero-egunero gogorarazi behar izaten dizkiegu hartu behar diren neurriak: distantzia, eztula egitean besoa jarri, eskuak behin eta berriz garbitzea,... Batzuei nekeza egiten zaien arren, oro har ondo daramate eta gure laguntzarekin hartu beharreko neurriak hartzen dituzte.

**Eta beraien familiek?**

Senideek nahiz erabiltzaileek aurreko egoeratik gehien behar dutena, elkarrekin egotea da. Ezinezkoa denez, enpresak erraztutako tablet edota mugikorarekin nahi adina bideo bidezko dei egin ditzakete. Familien aldetik animoak eta esker-rrak besterik ez ditugu jasotzen egiten ari garen lanagatik.

**Bukatzeko, guzti honetatik zerbait positiboa ateratzen al duzu?**

Gure lana gehiago baloratzen ari dela iruditzen zait. Uste dut, egoera hau baliagarria izaten ari dela herritarrak osasungintzak duen garrantziaz kontziente izateko. Nahiko nuke etorkizun batean ere halako garrantzia ematea. Egoera honek erakutsi digu osasuna herritarron behar nagusietakoa dela, beraz beharrezkoa da inbertsioak egin eta bertako langileen eskubideak bermatzea.

MAIALEN ALKORTA MEDIKUA:

## «Iruditzen zait bakoitzak bere alorrean ekarpena eta esfortzua egin duela»


Maialen Alkortak Donostiako Ospitalean egiten du lan Kirurgia orokorra eta Digestio aparatuko kirurgiako arloan. Gibel, behazun eta arearen kirurgian espezializatua da.

**Berez, ez zara koronabirusarekin kutsatutakoekin ari lanean, baina eragina nabaritzen duzu, ezta?**

Ez, ez nago lehen lerroan koronabirusa duten gaixoekin. Susmagarria den edo konfirmatutako kasuren bat baloratzea tokatu zait, hauek ere birusaz gain, beste gaixotasun kirurgikoak eduki baititzakete, baina kasu gutxi izan dira. Orokorrean zirujano-oi, lan bolumena asko gutxitu zaigu, urgenteak diren egoerak edo tumore txarrak bakarrik operatzen ari garela-ko egoera honetan. Guardietan ere urgentzi kopuru gutxiago edukitzen ari gara. Jendea ospitalera joateko "beldurrak" dagoelako. Honek alde batetik agerian uzten du askotan beharrezkoa ez denean erabiltzen dela urgentzietako zerbitzua, baina bestalde, egoera honetan ez ospitalera etortzeagatik, etxean gehiegi itxaroten duenik ere badago eta batzuk beranduegi eta egoera larriagoan daudenean iristen dira guregana.

**Noiz hasi zineten honi aurre egiteko prestatzen eta nola?**

Fase ezberdinak pasa ditugu. Hasieran, Txinan mugatua zegoenean, oso urruti ikusten zen eta pixkanaka gaixotasunari buruz irakurtzen eta informatzen hasi ginen. Gero Italiarantz etorri zenean jada ikusten genuen edozein egunetan iritsiko zela gurera eta protokoloak prestatzen hasi ziren. Arabako olatua etorri zenean berriz, ospitalean aldaketak eman ziren kolapso egoera ekiditeko. Honek guri zuzenean eragin zigun, alde batetik kirurgia



kopurua mugatu zen, eta bestetik guk erabili ohi ditugun kirofanoak, intentsiboko gela bezala prestatu ziren. Kirofano bakoitzean, bi arnagailu jarri ziren bi gaixo artatu ahal izateko, zainketa intentsiboetako unitatea betez gero. Operazio gehienak Poliklinikara eramane ziren, edo eta beste edifizio (Gipuzkoa eraikineko) kirofanoetara. Gaur egun okerrena pasa dela pentsatzen da eta pixkanaka normaltasunera bueltatzen hastea espero da.

**Zeintzuk izaten dira zuen protokoloak lanerako orduan?**

Ospitalera iritsi orduko, norberaren arropak erantzi eta hango pijamak jantzen ditugu. Maskarila kirurgikoak jantzi (ez FPP2) eta ondoren, ordenagailua, telefonoa eta gure despaxuko materialak garbitzen ditugu

alkohola eta desinfektanteekin. Garbiketa bukatu ostean, eskuak garbitu eta gure eguneroko lanarekin hasten gara (batzuk kirofanora, besteak plantako gaixoak ikusi, kontsulta telefonikoak, etab.). Lanean gauden bitartean, nahiko zorrotz betetzen ditugu higie-neurriak (eskuak garbiketa batez ere) eta pertsonen arteko distantzia minimoa. Bilerak oso mugatuak izaten ditugu, batez ere jende kopuru aldetik. Lana bukatuta-koan berriro ere gure arropak jantzi eta etxera.

**Ondo informatu eta prestatu zaituztetela iruditzen zaizu edo hutsuneak ikusten dituzu? Agian hasieran...**

Osakidetzak, lanerako protokoloak eta hauen aktualizazioak bidaltzen dizkigu maiz, baina orokorrean gaixotasunari buruzko informazio bila-

keta eta formakuntza norberaren interes kontua da. Beste arlo batzuetan bezalaxe, medikuntzan ere beti egon behar gara formatzen edo irakurtzen ateratzen diren berrikuntzen berri izateko. Eta egoera honetan are gehiago.

### **Material falta ere baduzue edo izan duzue?**

Gure gaixoak dauden plantan ez da nabaritu falta hori, ez dugulako material oso berezirik erabiltzen (maskarillak, eskularruak eta eskuak garbitzeko hidroalkohola). Baina lehen lerroan dauden planta askotan eta urgentzietan bai izan dutela material eskasia. Askotan, EPI-ak (norberaren protekzioarako ekipoa) berrerabili egin behar izan dituzte, eta honek langileen kutsatze arriskua areagotzen du, batez ere ekipoa jantzi eta erantzera unean.

### **Momentu hauetan, lanera joatea zer da zuretzat?**

Zirujanon egunerokoa ez da asko aldatu. Egia da beti daukadala buruan koronabirusaren gaia, batez ere gaixoren batek sukarra duela esaten digutenean.... "Birusarekin erlazioa izango ote duen ala ez" galdetzen diozu zure buruari. Orokorrean kezka gehiagorekin joaten naiz lanera eta jai egunak besteetan baino gustorago hartzen ditut, nahiz eta etxean geratu behar izan. Bistaratuta geratu da egoera honetan lanera joateak, osasun langile gehienoi antsietate puntu bat sortzen digula. Beraz, garrantzitsua da norberaren burua zaintzea. Horretan laguntzeko, Osakidetzak "autozaintzarako gidak" bidaltzen dizkigu tarteka eta mindfullnes ikastaro birtualetan parte hartzeko aukerak ere bai.

### **Lanetik bueltan, etxeako kutsatuko dituzun kezka izaten duzu?**

Bai. Horregatik, etxera iritsi eta aurreneko gauza arropak labadoran sartu eta dutxatu egiten naiz.

Inguruko bizilagunekin ere kontaktua ekiditen saiatzen naiz, nahiz eta baserri giroan hori askotan zaila den.

### **Osasungintzan kolapsorik ez egoteko, etxean geratzeko eskatu zaigu. Neurria momentu egokian hartu zen edo berandu...?**

Nere ustez etxean geratzeko neurria pixka bat berandu hartu zen, batez ere, Madrili dagokionean, neurria hartu zenerako, hango egoera nahiko txarra baitzen. Gipuzkoan, adibidez, beranduago iritsi denez, une egokian hartu ziren neurriak. Hala ere, esango nuke gure orografiak asko lagundu duela kolapso egoera hori ekiditen.

### **Eta orain zer? Txarrena pasa dela eta pixkanaka deskonfinamendua hasiko da. Hala ere, kutsatzeko arriskua badago oraindik, ezta?**

Bai, kutsatzeko arriskua oraindik hor dago, eta hor egoten jarraituko duela esaten dute, hau da, gripearekin bezala, birus honekin ere bizitzen ikasi behar omen dugu. Deskonfinamendua pixkana egin beharko litzateke, eta ohitura bezala hartu higiene neurriak (eskuak maiz garbitu, besaurrea jarri ez zuten egitean, sintomak dituenak maskarila erabili, etab.) eta distantziak mantentzea.

### **Txinan eta beste herrialde batzuetan proba masiboak egin omen dira sintomarik ez zuten artean ere, lehenbailehen aktuatu eta eraginkorragoak izateko birusa ez zabaltzeko orduan. Hemen zergatik ez dira egin hainbeste proba?**

Txinan emandako datuei dagokionez, geroz eta argiago geratzen ari da datu asko ezkutatu dituztela (hildako kopurua, infektatu kopurua, etab.) eta Txinan bezala beste herrialde askotan ere. Gurean ez dira test masiboak egin, batez ere ez zeudelako eta zeudenak priorizatu egin behar zirelako ingresatutako gaixoentzat, erresidentzietako egoilar eta langileentzat, osasun

arloko langileentzat, etab. Testak nahi adina egon izan balira, noski aproposagoa izango zela denei egitea, baina batez ere mapa epidemiologikoa lortze aldera, hau da jakiteko nork pasa duen gaixotasuna eta nork ez.

Bestalde, garrantzitsua da jakitea test mota ezberdinak daudela. Mota batek, ea une honetan birusa duzun adierazten du eta asintomatikoegi eginez gero, %30ean baino gehiagotan negatibo faltsua ematen du, beraz sintomarik ez duten gaixoetan bere sentsibilitatea nahiko baxua da. Beste test mota batzuk berriz, ea gaixotasuna pasa duzun adierazten dute. Honek norberari lasaitasuna eman diezaike gaixotasuna pasa duela ateratzen bazaio, baina oraindik adituek ez dakite nahiz eta gaixotasuna pasa, noiz arte egon zaitezkeen babestua.

### **Pandemia honen ondorioz, gure osasungintza publikoa gehiago baloratu eta hobeto prestatzeko balioko duela iruditzen zaizu?**

Hala espero dut. Triste da horrelako egoera bat pasa behar izatea osasungintza publikoa baloratua izan dadin. Pentsatu nahi dut hemendik aurrera politikoek osasungintza publikoari gaur egun duena baino garrantzia gehiago emango diotela (bai ekonomikoki, baita sozialki ere) eta pribatizazioak behera egitea.

### **Zerbait positiboa atera al duzu honetatik guztitik?**

Orokorrean gizarte osoaren inplikazio maila altua (nahiz eta beti badauden salbuespenak, ogia erosteko aitzakiarekin edo txakurra ateratzeko aitzakiarekin egunean 10 aldiz ateratzen direnak adibidez.) Batez ere osasun langileak, suhiltzaileak etabar txalotu dira, baina iruditzen zait bakoitzak bere alorrean eta ahal izan duen heinean bere ekarpena eta esfortzua egin duela egoera gogor hau ahalik eta eramangarrien egin ahal izateko.

**NEREA ZENDOIA FARMAZIALARIA:**

# «Estres eta tentsio handiarekin bizi izan dugu egoera»

Nerea Zendoiak Donostiako Zarautz hiribideko Lorea botikan egiten du lan.

**Koronabirusaren ondorioz, nola aldatu dira zure lana eta jendearen joerak?**

Lanean aritzeko modua asko aldatu da. Lanpostuan segurtasun manpara daukagu eta segurtasun tartea mantentzeko zinta batzuk jarri ditugu. Maskarilla eta karetaekin aritzen gara lanean eta eskuak maiz garbitzen ditugu.

**Pentsatzen dut fase desberdinak biziko zenituztela.**

Hasiera batean txinatarrak etortzen ziren maskarilla bila Txinara bidaltzeko, baina jada zailtasunak genituen hauek lortzeko. Italian kasuak agertu zirenean bertako bezeroak etortzen ziren maskarillak erosi nahian, gero alkohola, hidrogelak, termometroak eta paracetamola. Orain haurrentzako maskarillengatik galdetzen digute.

**Hasieran histeria edo jendearen kezka sumatuko zen, maskarillak, guanteak, desinfektanteak erosten... Horren ondorioz, material falta... eta ondoren prezioen gorakada... Nola bizitu duzue hori dena?**

Estres eta tentsio handiarekin bizi izan dugu egoera, jendea oso urduri etortzen zen guregana. Orain badi-rudi lasaitu dela egoera.

**Botikekin ere egon al da arazorik?**

Botikekin ez dugu arazorik izan. Bai ordea eskularru, maskarilla, hidrogel, termometroak eta defentsekin erlazionatutako C eta D bitaminak lortzeko.

**Informazio eske ere etortzen zai-**



**zue jendea birusa dela eta?**

Hasieran bezeroak kezkatuta etortzen ziren gaixotasunaren inguruan galdezka. Madrilan kasuak agertu zirenean pentsatzen zuten eskularruak eta maskarilla erabilia ez zegoela kutsatzeko arriskurik. Askotan azaldu diegu eskuak garbitu eta eskularruak ondo jarri eta kentzearen garrantzia. Etxean egoteko ez da hidrogelik behar, ura eta jaboiarekin nahikoa da.

**Lanera joateko aukera edo beharra izan dutenetako bat zara. Alde horretatik nola bizi duzu?**

Erantzunkizun handiarekin. Lanean jarraitzeko aukera izatea onuragarria delako eta bestalde etxetik atera eta lanean aritzeak duen arriskuagatik.

**Lanetik bueltan etxeakoak kutsatuko ote dituzun kezkarekin itzultzen al zara?**

Bai, horregatik etxera iritsi eta

berehala zapatez eta erropaz aldatu eta eskuak garbitzen ditut.

**Zuen egunerokotasuneko lanean, ze eragin nabaritu duzue?**

Bi taldetan banatu gara elkarrekin ez kontaktua izateko. Iritsi bezain laister eskuak garbitu eta maskarilla eta kareta jartzen dugu eta lanpostua desinfektatu. Sarreran hidrogela jarri dugu bezeroek sartu aurretik eskuak garbitu ditzaten. Gehienez hiru bezero egon daitezke botika barruan aldi berean, mostradore bakoitzeko bat.

**Txertoa noizko egongo dela aurreikusten da?**

Txertoa komertzializatu ahal izateko denbora behar da eraginkortasun eta segurtasun baldintzak bete ditzan.

**Honetatik guztitik zerbait positiboa atera al duzu?**

Detalle txikiak eta maite ditudan pertsonak gehiago baloratzen ditut.

### III. ATALA: NEGOZIOAK

#### ARISTONDO NEKAZALTURISMOA ETA BARAZKIAK:

# «Geldialdi honek baliteke bertako elikadurak zer garrantzia duen konturatzen laguntzea»

Aristondon ohiko erritmoan jarraitu dute baratzagintzari dagokionez, gauden urte sasoiari eskerrak, baina nekazalturismorako ondorio gogorak izan dira.

#### **Konfinamenduak ze eragin izan du zuen negozioan?**

Nekazalturismoa itxi beharra, honek dakarren ondorio guztiekin. Galera ekonomikoa batez ere.

Bestalde, baratzan betiko mar-txan jarraitu dugu.

#### **Asteak ere pasa dira eta agian fase desberdinak egon dira...**

Lehenengo asteetan kantzelazio zaparrada izan zen, orain bakana-goak dira. Erreserba data inguratz-en ari denean tantaka erortzen dijoaz. Gure lan erritmoak ere aldatzen joan dira eta orain egokituagoak gaude egoera berrira.

#### **Baratzak aurrera jarraituko zuen, ordea. Ze irtenbide eman diozue barazki horri?**

Urte sasoi honetan guk behintzat ez dugu produktu gehiegi izaten eta ez dugu arazo handirik izan salmentarako. Betiko zuzeneko bideekin jarraitu dugu. Beste gauza bat izango zen uztailean hau gertatu izan bazen, orduan bai izango zirela arazoak ostalaritza itxita izanik.

#### **Azokak ixteko saiakerak ere egon dira... Zer duzue esateko?**

Benetan lotsagarria, dekretuak irakurrita ematen zituzten arrazoiak negargarriak ziren erabaki horiek justifikatzeko. Denda eta supemekatua baino baldintza higieniko zorrotzagoak eskainita ere, ixteko



dekretuak. Eskerrak 300 eragiletik gora batu eta erabaki hori atzera bota zen.

#### **Orokorrean, pandemia honen eragina nolakoa izaten ari da baserri-tarrentzat? Agintariak hartzen ari diren neurriak nolakoak izaten ari dira?**

Ez gaude batere ados agintari-ekin orain arte hartu dituzten erabakiekin. Komertzializazioaren atalean 6 milioko diru (publiko) kopuru bat jarri dute kate handietara bideratzeko, saldu ezinean gelditu diren produkzioak. Baina zuzeneko salmentaren inguruko inizatibei eta azokei arazoak eta trabak besterik ez dizkiete jarri eta laguntza arras-torik ez.

#### **Beste modu bateko zuzeneko sal-**

#### **mentarekin saiatu zarete?**

Ez dugu beharrik izan, baina aukera izan dugu EtxEKO izenarekin eta Sareko proiektuaren barruan produk-tu ekologikoak banatzeko Donostialdean antolatu den ekimenean.

Informazio gehiagorako: [www.sareko.net](http://www.sareko.net)

#### **Langilerik baduzue? Neurriren bat hartu behar izan duzue?**

Ez, guk ez dugu kontratatutako lan-gilerik, etxeok moldatzen gara.

#### **Zuen egunerokotasuneko lanean, ze eragin nabaritu duzue?**

Elikaigaiak banatzerakoan eta pres-tatzerakoan neurriak zorrotzagoak dira egoera honetan, dena den beti saiatzen gara gauzak txukun egin eta aurkezten.

Nekazalturismoa itxita edukitze-



ak aukera ematen digu baratzako lanak aurreratzen joateko eta iritsi ezinik alde batera utzita daukazun hainbat gairi heltzeko.

**Nekazalturismoari dagokionez, Aste Santua tartean, eragin ekonomiko handia izango zela pentsatzen dut. Udan zer gertatuko den ere ez dago argi...**

Galera ekonomiko garrantzitsuak dira atal honetan, Aste Santua eta hilebeteak itxita egon beharrak ondorio gogorak ditu. Noiz ireki ahalko dugun ez dakigu eta ze balditzetan ere ez. Azken urteetan

dexente gora zijoan turista atzerri-tarraz ahaztu beharko dugu..., estatuko eta inguruko bezeroak nola mugituko diren aurrerantzean zalantza handiak ditugu.

Udan zer gertatuko den ikusteko dago oraindik, baldintzak... egoera berriari egokitzen joan beharko dugu .

**Erreserba egina zutenekin nola jokatu behar izan duzue?**

Aurrerapena egina zuten eta kantzelatu duten bezeroei oso osorik bueltatu diegu aurrerapena.

**Bukatzeko, honetatik guztitik zerbait positiboa ateratzen al duzue?**

Hainbat inizatiba interesgarri jartzen ari dira martxan: etxez etxeko banaketak, produktore sareak eta abar.

Geldialdi honek baliteke gure bizitzako ohitura eta dinamikak aldatu beharra daukagula planteatzen laguntzea. Bertako elikadurak zer garrantzia duen konturatzen laguntzea eta produktu hori nola ekoiztua dagoen galdetzea.

Herri baten burujabetza bere elikaduraz hornitzeko gai den mailan ere neurtzen da.

## ENERITZ OTAMENDI - IGELDOKO ESNEA:

# «Hau pasatakoan, lehengora itzultzeko tentaziorik ez izatea nahi nuke»

Igeldoko Esnean sekulako kolpea eragin dute koronabirusaren ondorioz hartutako neurriek. Tartean, ez hanka eta ez bururik ez duten erabakiak, Otamendiren ustez.

**Orokorrean, konfinamenduak ze eragin izan duen negozioan?**

Ikuiluan eta esnetegian lana berdintsu, banaketan aldiz, gutxitu da lana. Gastuak berriz, berdintsu eta sarreak asko gutxitu direnez, ondorioa ateratzen erreza da: galerak.

**Asteak ere pasa dira eta agian fase desberdinak egon dira?**

Ba ez pentsa, gure kasuan martxoaren 15ean sekulako astindua izan zen, gure bezeroen gehiengoak atek itxi zituen egun batetik bestera eta ostiralean prestatu genuen esnea saldu ezinik geratu ginen. Hori dela eta, deialdi bat egin eta herrian saldu genuen. Herritarren harrera ikusita herriko banaketari eutsi genion astean bitan eta esker hitzak besterik ez ditugu igeldoarrentzat. Orain pixkanaka Donostialdeko kontsumo taldeekin harremanetan jarri eta beste



salmenta bide batzuk jorratzen ari gara. Egian ere saltzen diegu herritarrei zuzenean... ahal dena egiten, baina lehengo salmentetatik urrun oraindik.

**Hasiera batean esne makinak ere itxi zizkizueten. Zer duzue horren**

**inguruan esateko?**

Hori beste kolpe bat izan zen. Inoiz baino hobeto saltzen ari ginen makinetan, herritarrek konfiantza zutela gugan erakutsi zuten, baina agintariek errezena egin zuten, gurekin harremanetan jarri ere egin gabe itxeko erabakia hartu. Udaltzain

batek telefonoz abisatu zigun mar-  
txoaren 18an iluntzeko 20tan ixtera  
zihoazela. Arratsalde horretan ber-  
tan 300 litrotik gora eramank geniu-  
tuen. Aste bete itxita eduki ostean  
lortu genuen berriro martxan jar-  
tzea, bezeroentzat gela eta eskula-  
rruak jarrita eta erabiltzeko protoko-  
lo bat zehaztuta. Kosta zaie lehengo-  
ra etortzea, baina pixkanaka ari dira.  
Hau dena ekidin zitekeen gurekin  
hitz egin izan balute. Inork ez dizkigu  
galdu ziren 300 litroak, uxatutako  
bezeroak, eta aste beteko itxieraren  
ondorioak itzuliko, baina okerrera da  
udaleko inor ez gurekin harreman-  
tan jarri izana.

### **Behiek ordea egunero esnea eman jarraitzen dute. Ze irtenbide eman diozue esne guzti horri?**

Egunero esnea ematen eta egunero  
jaten, diru asko joaten da behien  
elikaduran. Kaikuko bazkideak izan  
gara kooperatiba sortu zenetik eta  
urte sasoiaren arabera gehiago edo  
gutxiago, beti entregatu dugu  
esnea. Orain ere kooperatibak  
jasotzen digu. Baina kontu egin  
litroko 0,30€ ordaintzen digutela  
eta horrek ez dituela gauza asko  
ordaintzen, guk dugun egitura ezin  
da prezio horrekin sostengatu.

### **Igeldon, etxez etxeko salmenta ere martxan jarri duzue. Zer moduzko erantzuna izaten ari da?**

Lehen esan dut baina berriro esango  
dut, oso eskertuta gaude igeldoarrek  
egin diguten harrerarekin eta lagun-  
tzeko duten borondatearekin, egia  
esan etxe askotan ari gara esnea  
uzten eta aprobetxatu nahi nuke  
deia luzatzeko oraindik ez dakien  
norbait balego. Ostegun eta igande-  
tan egiten dugu banaketa, bezperan  
eskaria egiten didate whatsapp mezu  
bat bidalita edo telefonoz deituta eta  
hurrengo egunean etxez-etxe joaten  
naiz furgonetarekin. Beraz, Igeldoko  
esnea nahi baduzue deitu lasai.  
Eneritz: 653709586.

### **Langileak badituzue, lanean jarrai-**

### **tzen dute ala neurriren bat hartu behar izan duzue?**

Lanean jarraitzen dute, baina jardun-  
aldi murrizketa eskatu behar izan  
genuen. Banaketan bi furgoneta  
astean sei egunetan ateratzetik fur-  
goneta bat astean hiru egunetan  
ateratzera pasa gara, oso bezero  
gutxi jarraitu dute ateak irekita.  
Denda txiki batzuk, harategiak,  
janaria prestatzen duten batzuk.  
Okerrena da gainera ez jakitea noiz  
arte jarraituko duen egoera honek.

### **Zuen negozioa oinarrizko zerbitzua izanik, momentu guztian izan duzue negozioarekin jarraitzeko aukera, ezta? Dena dela, etxekoak kutsatuko ote dituzuen kezkarekin bueltatzen al zarete, banaketa egin ostean, adibidez?**

Guk ez dugu jarraitzeko aukera izan,  
guk esnea ekoizten jarraitzeko bete-  
beharra izan dugu dekretuz. Eta ku-  
tsatzeko kezkari buruz, beldurra  
sartu digute hezurretaraino eta  
kezka ematen du, baina ahalik eta  
neurri gehienekin lan egiten saiatu  
gara. Banatzaileei lehen egunetik  
eman genizkien guanteak, gelak eta  
maskarillak (zortez etxean bageni-  
tuen batzuk, ze hori beste kontu bat  
litzateke...). Distantzia mantentzen  
dugu bezeroekin, etxera ailegatu  
orduko eskuak garbitu, esnetegian  
garbiketa beti egiten da zorrotz...  
gure esku dagoen guztia egiten dugu.  
Zortez gara inor gaixotu ez delako  
eta jarrai dezagula horrelaxe.

### **Zuen egunerokotasuneko lanean, ze eragin nabaritu duzue?**

Lehen aipatu bezala higiene neu-  
rriak beti dira zorrotzak esnetegi  
batean, baina egoerak eskatu du  
gelak eta bestelako gauzak eskura-  
tzea eta momentu askotan ez da  
erreza izan. Gaur da eguna maskari-  
llak ezin direna ohiko bideetatik  
eskuratu eta merkatuan daudenak  
urre prezioan daude. Benetan sala-  
tzekoa da gertatu dena, jendearen  
lehen mailako premia baten kontu-  
ra aberastea.

### **Pandemia honen eragina nolako izaten ari da baserritarrentzat? Agintariak hartzen ari diren neurriak nolakoak izaten ari dira?**

Lotsagarria izan da batez ere  
Jaurlaritzaren jarrera, azoken kon-  
tuarekin, baratzeen kontuarekin... ez  
hanka eta ez bururik ez duten eraba-  
kiak hartu dituzte.

Beste adibide bat ere jarriko dut.  
Jaurlaritzak 6 milioiko laguntza bat  
jarri du ustez baserritarrei laguntze-  
ko. Gure "soberakinak" merkatura-  
tzeko. Ba neurri honen onuradunak  
Eroski, Carrefour, Kaiku, Euskaber,  
Harakai eta antzekoak izan dira base-  
rritarren izenean. Gure ekoizpenak  
hauetara bideratzeko esan digute,  
hori bai, prezioa beraiek jartzen dute  
eta administrazioak jarritako 6 milioi  
euro horiek ere beraiek jasoko dituz-  
te, guk ez dugu zentimo bat ikusiko  
partida horretatik eta soluzioa baino  
gehiago zigor bat iruditu zaigu. EAJk  
ezarritako eredu agroindustrialetik  
kanpora zerbait eraiki nahiean gabil-  
tzanoi zigor bat. Guk eta gu bezala  
askok izan duen soluzio eta eskaintza  
bakarra galerei mailegu baten bidez  
aurre egitea izan da. Hau da zorrak  
bizkarrean hartu eta zutik eusten  
badiogu, pozik.

### **Zerbait positiboa ateratzen al duzue?**

Bai, jendea. Jendeak erakutsi duen  
baserritarren aldeko jarrera, azo-  
ken injustiziari aurre egiteko ahal-  
mena, beste eredu batzuk eraikitze-  
ko itxaropena. Eta etxera begiratu-  
ta gertatu den guztia gertatuta ani-  
moei goian eusteko indarra izan  
dugu, etsipenean erori gabe eta bai  
ala bai, aurrera aterako garela  
sinetsita, eta ez da gutxi.

### **Bukatzeko, beste zerbait gehitu nahiko zenuke?**

Gure eguneroko erabakiek mundu  
honen martxa alda dezakete, badugu  
horren beharra. Hau dena pasatoko-  
an lehengora itzultzeko tentaziorik  
ez izatea nahi nuke. Zerbaitetarako  
balio izatea honek guztiak.

IÑAKI OSTOLAZA - LEKU EDER HOTELA:

## «Aurrera begira, pentsatzen dut hazi daitekeela “modu oneko” turismoa»

Iñaki Ostolazak Leku-Eder hotelean bizitakoaren eta bere gogoeten berri eman digu.

### Konfinamenduak ze eragin izan du zuen negozioan?

Gure kasuan ere hotela guztiz itxi izan behar dugu. Nahiz eta guztiz itxeko agindua martxoaren 18tik aurrera izan, 15ean bertan itxi genuen.

Segurtasun neurriak egoki betetzea zaila zenez, lehenago itxekotan ere egon ginen; baina guztiz blokeatuta eta nora joanik ez zuten bezero batzuk zirela medio, berantago itxi genuen.

### Aste Santua tartean, eragin ekonomiko handia izango zen eta udan zer gertatuko den ere ez dago argi...

Bai, Jakina. Beste hotel eta landetxe guzietan bezala galera ekonomikoa handia izan da. Gainera, txiki garenok eta proportzionalki handiagoek baino langile kopuru handiagoa dugunok, okupazio tasa handiko egun horiek oraindik garrantzitsua goak izaten dira okupazio txikiagoko denboraldietan izaten diren galerak errekupeartzeko.

Udari buruz berriz, ez dago bate-re argi, baina uste dut ez dela inondik ere ona izango. Krisi hau orokorra izan da, eta ez da bakarrik gure inguruan gertatu (Espainia, Frantzia, Europa). Orokorra denez, sortu den beldur eta ziurgabetasunak eraginda nonahiko (berdin dio nongoak diren) turistak erreserbak bertan behera uzten ari dira. Oraingo, sartzen ari diren erreserba bakan gehienak abuztutik aurrerakoak dira, baina konta ahalakoak!

Bestalde, oraindik ere ez dago batere argi zer neurri hartu beharko



diren langile eta bezeroen segurtasuna modu eraginkor batean bermatzeko. Izan ere, dena berplanteatu beharra izango dugula argi dago, eta horrek berak hasiera batean behinik behin, lan karga txikitu beharra ekarriko digu.

### Nola bizitu duzu edo bizitzen ari zara hau guztia?

Egia esan behar badut, martxoaren hasieran nik ez nuen inondik ere espero honen eragina hain handia eta zabala izango zenik, ia denon egunerokotasuna aldatzeraino eta ekonomia ia gelditzeraino.

Batez ere egoera hau noiz arte luzatuko den ez jakiteak kezka sortzen du. Itxi genuenean gure artean esaten genuen "hobe litzateke martxoan eta apiril guztian neurri zorrotzak hartuz ia dena itxiko balitz maiatzean berriz martxan hasteko" adierazi nahirik hobe zela hasieratik neurri zorrotzak hartzea hau dena lehenbailehen pasa zedin. Orain berriz, ez dut batere argi ikusten noiz ireki ahal izango dugun. Epeak oso

lauso ikusten dira eta astez aste ikusi beharko dugu gauzak zertan diren.

### Zer neurri hartu dituzue langileekin?

ERTE bat egin dugu. Garbitzaileek guztiz utzi dute beren lana. Harreran lan egiten dutenen kontratua ez da guztiz eten, beren etxeetatik telelana (erreserben kontrola, mailak etab.) egiten baitute. Mantentze lanetarako dugun pertsonaren kontratua ere murriztu egin da, baina ez guztiz eten. Beraz batzuk partzialki eta beste batzuk guztiz ERTE batean daude. Asmoa da hotela berriz irekitzeko baimena jasotzean, eta segurtasuna bermatua dagoela ikusten dugunean, ahal bada langile guztiak berriz lanean hastea, nahiz eta jakin seguru asko aktibitatea jaitsi eta galerak izan daitezkeela. Espero dezagun joera hau ez dadila luzaro mantendu, eta gauzak poliki bada ere hobeto joaten hasiko direla!

**Orokorrean, pandemia honen era-**

**gina nolakoa izaten ari da zuen sektorean? Agintariak hartzen ari diren neurriak egokiak iruditzen al zaizkizu?**

Nik dakidanez, pandemia hasi zenez, aktibitatearen etena gure sektorean ia erabatekoa izaten ari da. Egoerak eta agintariak hartu beharreko erabakiek eraginda ezinbestekoa izan da. Gainera, kontutan izan behar da turismoaren aurretik osasuna dagoela, eta osasuna bermatzea turismoan ere ezinbesteko baldintza dela.

Bistakoa da turismoa egin nahi duenak osasunaz aparte lehen mailako beharrak aseta eduki behar dituela eta gutxieneko ahalmen ekonomiko bat. Bestalde turismoa egin nahi duten gehienek ziurtasuna eta lasaitasuna ezinbestekotzat jotzen dituzte.

Oraingo egoera hau hori dena aztoratzen ari da: Osasuna, egoera ekonomikoa, ziurtasuna eta lasaitasuna (inork ez baitaki egoera hau noiz arte eta nola bilakatuko den). Beraz denok zer gertatuko zain gaude!

Pentsatzen dut maila ekonomiko handia behar duen turismoak behera

egin dezakeela, eta aldiz hazi daitekeela "modu oneko" turismoa bilatzen duen jendearen kopurua. Alegia merkeagoa izanik kalitate/prezio harreman ona duen turismoa.

Badakigu egoera honek agintariari gainezka egin diela eta gure sektorean ere hartzen ari diren neurriak pixkanaka ateratzen ari direla, eta gauzatu arte zain egon beharko dugula. Dena den, administrazioen arteko koordinazioa hobetu daitekeela uste dut, eta horretan ez duela ezer ere laguntzen erabakiak zentralizatu nahi horrek. Jakina, nahiz eta administrazioaren aldetik laguntza batzuk jaso, galerak handiak izan daitezkeela pentsatzen hasiak gara.

**Bukatzeko, zerbait positiboa ateratzen al duzu?**

Gizarte bezala eta dudarik gabe, hainbeste kalte eta kaltetu eragiten ari den pandemia honetatik denok zerbait positiboa aterako dugulokan nago. Uste dut zenbait gauzatzat eta bere garrantziaz gehiago jabetzen hasiak gara; esate baterako:

Apaltasun pixka bat: Uste genuen dena (mundua, natura) gure gizarte

modernoaren menpe zegoela eta birus xixtrin batek dena hankaz gora jarri du. Aldiz, egun hauetan natura lehen kendu zaizkion toki askotara itzultzen ari da.

Denon garrantzia: Lehen "behe mailako omen" ziren ezinbesteko bihurtu dira (garraiolariak, garbitzaileak, etab). Agian oraindik are argiago ikusten da neurriak hartu beharko direla denon artean denon beharrak ahal den neurrian asetzeko.

Osasun sistemaren garrantzia: Osasun sistema publiko on batek denon bizitzan izan dezakeen garrantzia

Gure kasuan, nahiz eta lan gehienak ordenagailu eta mugikorren bidez egin beharra izan (eta ez aurrez aurre), positiboa da bezero, ezagun eta lagunekin harremana izateko denbora gehiago izatea, erabakiak hartzeko denbora gehiago, gehienok bezala paperak ordentatzeko denbora, mantentze lantxo mordoska bat egiteko denbora, lanak planifikatzeko denbora... eta noizbehinka, denbora galtzea ez den denbora galtzen ikasteko denbora!

**IZASKUN, MAITE ETA MARIJOSE ETXABE - EKAITZ ERRETEGIA:**

## «Etorkizunean, zerbitzatzerik ere agian ez da izango!»

Ekaitz Erretegiko Etxabe ahizpek honek guztiak aldaketak ekarriko dizkiela uste dute.

**Konfinamenduak zer eragin izan du zuen negozioan?**

Taberna itxi beharra suposatu digu eta horrek dakarren galera handia; dena! Irabaztetik, ezer ez irabaztera pasatzea. Genero aldetik ere basanteko galera, goizetik gauera itxi beharrean aurkitzeak, galera handia eragin digu. Ez duzu pentsatzen

holakorik etorriko denik bat-batean.

**Igeldon, zuek izan zineten lehendabizikoak taberna ixten, agintariak adierazi aurretik. Zergaitik eman zenuten pauso hori?**

Kutsatzeko beldurra sortzen hasi zitzaigun, eta ez genuen bi aldiz

pentsatu. Kutsatu baino lehenago ixtea hobe zela erabaki genuen. Gainera, asteazken horretan ere kanpoko jendea izan genuen, Madrilekoak adibidez... eta kezka sortzen zaizu. Bezeroa dugun mediku batek aurreko ostiralean esan zigun gauza oso beltza zeterrela eta horrelako iritziak entzunda



beldurra eta errespetu handia sortu zitzaigun.

**Aste Santua tartean, eta egin duen eguraldia ikusita, eragin ekonomiko handia izango zela pentsatzen dut.**

Bai, Aste Santu garaia guretzat oso inportantea da, inportanteenetako bat ekonomikoki begiratzuz. Mugimendu handia izaten da, bertako eta kanpoko jendea ere mugitzen baita.

**Eta udan zer gertatuko den ere ez dago argi...**

Udarako? ba aurreikuspen txarra. Egoera beltza ikusten dugu. Udararen irekitzerik ere izango al da?... Ezjakintasuna nagusitzen da, inork ez daki ezer...

**Nola bizitzen ari zarete hau guztia?** Kezkarekin, kezka handiarekin. Gero nola funtzionatu beharko den zalantza handia dugu.

**Langileak badauzkazue, neurriak hartu behar izan dituzue?**

Langileak ERTEan daude. Eta gu ere bai, autonomo bezala baina ERTEan. Ostalaritzako asoziazioak esan zigun ze pasoa eman behar genituen eta beraien laguntzarekin egin genituen tramiteak.

**Orokorrean, ostalaritzari begira, agintariak hartzen ari diren neurriak egokiak iruditzen al zaizkizue?**

Bueno, aurren batean ondo. Baina egoera ere oso larria da eta hartzen dituzten erabakiak egokiak diren jakitea ere ez da errexia. Eta gure inguruan ostalaritzak duen indarra ikusita, horri buelta emateko zer?... denak ERTEan bai, baina denontzako allatuko al da?

**Eta aurrera begira, behin martxan hastean, egunerokotasuneko lanetan nabarrituko duzuela honen eragina uste duzue? Higiene neurri gehiago edo bestelako neurri batzuk... gastu gehiago, agian?**

Berdina ez dela izango argi dago. Kontzientziatu beharra daukagu, garbitasun gehiago, hartu beharreko neurriak... Ez dakigu nolako egoera izango den, momentuak erakutsiko digu. Baina argi dagoena da higie aldetik asko kontzientziatu beharko dugula denok, nahiz eta lehen ere garrantzi handia eman.

Kostanteagoa izan beharko da. Iristen den jeneroa ere nola hartu, desinfektatu egin beharko da ere? Agian dena kongelatzera iritsi beharko dugu? Jakin zazu... Sanidadekoek esan beharko dute nola funtzionatu behar dugun, eta

horren arabera hartuko dira erabakiak. Dituzun mahaien erdiekin funtzionatu behar bada, eta gastu berdinekin... ikusiko da zer gertatzen den. Zerbitzatzetik ere agian ez da izango! Bukatuko den beste kontu bat ere bezeroarekiko harreman gertukoa izango da: kontuak kontatu, bi muxu, haurrei besarkadak...holakorik ez da izango.

Hauek dira gure kezkak, orain imajinatzen duguna, baina agian hemendik hilabete batera beste era batean ikusiko dugu. Bakuna bat ateratzen badute ere gauzak asko aldatuko direla iruditzen zaigu.

**Honetatik guztitik zerbait positiboa ateratzen al duzue?**

Positiboa? Bueno, beti izaten da zerbait positiboa, dagoenaz kontzientziatzea. Orain artean pixka bat bizitu izan gara ezarren ajolarik gabe. Beste balore batzuk ematen dizkiozu gauza batzuei lehen igual ematen ez zeniena. Ze pentsa ematen dizu, zer egin dugun orain artean eta nora iritsi garen...

**Beste zerbait gehitu nahi duzue?**

Batez ere, orain dela 20 urteko bezero mota eta gaur egungoa ez dela berdina. Jendea beti bestea baino gehiago izan nahian dago. Barrako lanean ere asko erretzen zara. Kriston presioan, denak azkar nahi dute, ematen duzuna baino azkarrago beti. Lehen jendea eseri eta disfrutatzen etortzen zen, orain ez dute disfrutatzen, dena korrika eta presaka! Atetik sartu eta dena nahi dute segituan... gauza bakoitzak bere denbora behar du eta jendeak ez du ulertzen! Geroz eta exijentzi gehiago, jendea ere bere kontuekin erreta egongo da, baina azkenean kate bat bihurtzen da.

Espero dugu geldialdi honen ondorioz harreman mota hauek zerbait aldatzea, jendea lasaiago etortzea edo elkar errespetu gehiago izatea.

NEKANE ETA AINARA LIZARAZU - IMANOL HARATEGIA:

## «Lehenengo bi asteetan histeria kolektiboa bizitu genuen: saldu, saldu, saldu...»

Nekane eta Ainara Lizarazu ahizpek Altzan daukate harategia.

### Konfinamenduak ze eragin izan du zuen negozioan?

Hasieran erokeria izan zen. Jendeak ez zekien zer gertatzen ari zen, informazio falta zegoela eta urduri ikusten genituen bezeroak. Astakeriak erosten; gehiegi. Beldurra zegoen jeneroa bukatuko ote zen. Lehenengo bi asteetan jende pila izan genuen harategian. Saldu, saldu, saldu... histeria kolektiboa.

Pixkanaka lasaitzen joan da egoera. Barneratu egin dugu gertatzen ari dena. Ezagutzen ez duzun gauza bat ezagutzen zoaz eta errutinaren parte egiten duzu.

### Zuen kasuan, lan gehiago egin duzuela esan liteke orduan?

Bai bai, askoz lan gehiago egin dugu. Gure auzo honetan, egia esan, konfinamendua ez da oso ondo egiten. Eta gu kezkatuta ze ariko ote garen hartzen... Hala ere, batek esan zigun, gustora egoteko moduan ginela, dirua irabazten ari ginela eta...

### Kutsatzeko kezka hori izango zenuen, baina lanera joateko beharra ere bai... Zalantzarik egin al zenuten momenturen batean ireki edo ez?

Ez. Argi genuen zerbitzua eman behar genuela. Beste sektore batean ariko bagina, pentsatuko genuen, baina gure auzo honetan adineko asko eta langile jende asko bizi da. Helduei deitu ere egin diegu etxeetara eramatea nahi duten galdetzeko. Batzuek baliatzen dute zerbitzu hori. Beste batzuek nahia-go dute 30 minutuz etxetik ateratzeko aprobetxatu. Eta ulertzekoa da batzuk non bizi diren ikusita.



### Langileak ere badauzkazu. Moldaketarik egin behar izan duzue?

Ez, eta sekulako zorrea izan dugu. Eskubidea zuten egoera honen aurrean beste zerbaite planteatzeko eta berdin-berdin jarraitu dute lanean. Oso ondo inplikatu dira eta eskertzen diegu pila bat.

### Egunerokotasuneko lanean nola eragiten ari zaizue egoera?

Higiene aldetik neurri gehiago hartu ditugu: txartelarekin ordaintzea aholkatu, desinfektanteak erabili, maskarillak, distantzia errespetatu, eskuak aldiro garbitu, jeneroa hobeto babestu, bezeroek beraien erosketak hartzeko lekua jarri ahalik eta kontaktu gutxien izateko... eta horrek danak lanak atzeratzea dakar, noski. Hala ere, pixkanaka errutinaren parte bihurtzen dituzu.

Bestalde, higiena zaintze alde- ra, telazko poltsak beharrean, plastikozkoak erabiltzen ditugu erabat orain eta hori ere pena da.

### Igeldon etxez etxeko zerbitzua ere eskaintzen duzue. Zerbitzua mantendu duzue egoera honetan?

Mantendu dugu, bai. Eta bezero berriak etorri zaizkigu. Gaizki sentitzen ziren aurretik ez zigutelako guri erosten eta orain guregana jotzen zutelako. Molestia ote zen ere galdetzka. Baina guk asko eskertzen dugu, nahiz eta egoera honetan bakarrik izan. Guregan konfiantza jarri dute eta gurekin gogoratzeak poza ematen digu. Oso eskertuta gaude herriko jendearekin.

### Bukatzeko, zerbaite positiboa ateratzen al duzue?

Alde batetik, izatea geneuzkan failo batzuk ikusteko eta zuzentzeko balio izan du. Biharko egunerako ere barneratuko ditugunak, eta lehen garrantziarik ematen ez genienak. Adibidez: jeneroa ondo babestu behar dela, eskuak eta gauzak hobeto garbitu behar direla...

Bestetik, oso haserre gaude batzuek daukaten jarrerarekin. Egoera txar batetik ezagutzen duzu zein den zein, eta honek horretarako balio izan digu, adibidez. Jendea gehiago ezagutzeko modu bat izan da.

Gehiago saltzen ari garela positiboa dela irudituko zaie batzuei, baina ze baldintzatan ari gara? Guri behintzat ez zaigu positiboa egiten hori.

Dena dela, negatiboarekin gertatzen gara askotan eta esan beharra dago gehiengo ez dela horrelakoa. Eta ikusi dugu guk gure bezeroagatik begiratzen dugun bezala, bezeroak gugatik ere begiratzen duela. Guran pentsatzen duela eta hori asko eskertzen dugu.

**IÑAKI GARMENDIA IGELTSEROA:**

# «Zerbait txarra egiten ari zaren sentsazioarekin ibili naiz»

Iñaki Garmendiak igeltseritza negozioa darama Jon Lizarazu igeldotarrarekin batera.

## **Konfinamenduak ze eragin izan du zuen negozioan?**

Orokorrean, lan gutxiago daukagu. Hasiera honetan, pendiente geneuzkan lanak bukatzeko aukera izan dugu, eta horrekin jarraitu dugu, baina aurrera begira lana jaitsi egingo dela iruditzen zait. Honekin guztiarekin krisia iritsiko bada, jendea ez da ziurrenik obretan sartuko... Baina momentuan momentukoa.

Alde ona dugu ez dugula langilerik eta azkenean, guretzako jornala ateratzea dela kezka bakarra.

## **Autonomoen kuotarena ere hor dago. Ordaintzen ari zarete?**

Bai bai. Kenduko ote zuten esan zuten hasieran, baina momentuz ordaintzen ari gara.

## **Asteak pasa dira hau dena hasi zenetik. Nola bizitu duzue?**

Konfinamendua ezarri zenean, gelditu egin ginen. Ez genuen lanean jarraitu. Baina ikusi genuen gremiotako jendeak lanean jarraitzen zuela eta kontuan izanda pendiente genuen lanean ez genuela inorekin kontakturik izango, eraikin hutsetan ariko ginela, astebete geldirik egon ondoren, lanean hastea erabaki genuen.

## **Eta agindu berria iritsi zen, oinarrizko zerbitzua ematen ez zutenek ere geratu egin behar zutela zioena.**

Bai eta zalantza sortu zitzaigun lanea joateko aukera genuen edo ez. Orduan, geratzea erabaki genuen. Gestorarekin hitz egin, bezeroekin ere bai, boletinak irakurri... Azkenean, autonomoek lanera joate-



ko aukera genuela jakin genuen eta martxan jarri ginen berriz. Hala ere, beti kezkarekin. Badakizu kontrolen batean geratzea daukatela eta ez duzu argi nola jokatuko duten.

## **Informazio falta...**

Egia esan, asko mugitu behar izan dugu. Dokumentu dexente eraman behar izan ditugu gainean, badaezpada, lanera goazela justifikatzeko. Zerbait txarra egiten ari zaren sentsazioarekin ibili naiz, lapurretan ariko banintz bezala!

## **Etxekoak kutsatuko ote dituzun kezkarekin bueltatzen al zara lanetik?**

Ez, alde horretatik lasai nago. Jendea ez dagoen lekutan ari gara lanean momentuz, eta Jon eta biok ere hartzen ditugu neurriak. Bakoitza bere aldetik joaten da lanera. Han ere ahalik eta kontaktu gutxien izaten dugu eta eskuak maizago garbitzen ditut orain.

## **Egunerokotasuneko lanean ze eragin izaten ari da?**

Momentu batean, ezin lanak buka-

tu geratu ginen. Hornitzaileek hasierako asteetan profesionalentzat zerbitzua ematen zuten, baina oinarrizkoak ez ziren zerbitzuak gelditu zirenean, itxi egin zuten eta material faltarekin geratu ginen lanak bukatzeko. Eta beste lan batzuk jarraitzeko ere, beste gremioek sartu behar zuten eta haiek ere ezin beraien lanak egin... Gauza batzuk atzeratzea ekarri zuen horrek, baina apirilaren 14tik aurrera hornitzaileek zerbitzua eskaintzearekin batera, berriz martxan jarri ginen.

Bestalde, nere bikotea telelana egiten ari da. Baina ni lanean baldin banago, berak ezin du lanik egin umea dela eta. Beraz, nik ere ezin dut orain arteko martxan jarraitu. Honek guztiak modu batean edo bestean eragiten digu noski.

## **Bukatzeko, zerbait positiboa atera al duzu?**

Etxean eta familiakoekin gehiago egoteko aukera eman dit. Etxeko lanak eta txukunketak egiteko ere aprobe txatu dugu.

### III. ATALA: HERRITARRAK

#### IDOIA ALDEKOA ETA ASIER SOTA:

## «Arnas falta dugu eta batik bat gure familiak besarkatzeko gogoia»

Idoia Aldekoa eta Asier Sota kaxkoan bizi dira beraien bi alabekin.

**Bi alaba daukazue, baina konfinamendua hasi zenean oraindik Alize jaiotzeko zegoen. Nola bizitu zenuen konfinamenduaren hasiera?**

Ba egia esan, konfinamenduaren hasiera aukera bat bezala bizi izan genuen, opari bat bezala; zeregin eta errutinetan geldialdia egin eta elkarrekin lasai egoteko aukera bezala. Momentu egokia izan zen guretzat, justu Alize jaio aurretik, Martinarekin lasai egon ahal izateko eta elkarrekin disfrutatzeke.

Hasieran ez ginen kontziente ere honek guztiak izango zuen dimentsioaz eta ez genion arreta handiegirik jarri... Barrura begiratu genion, etxean goxo egoteari, elkarrekin egoteari, erditzerako prestatzeari... Kezka eta beldurrei atea itxi genien, erditzea gertu zegoela ikusita, geure buruak babestu eta konfiantzan eta dena ondo aterako zenaren sinismenean zentratu behar genuela hautatu genuen, eta horregatik, ez ginen larregi pentsatzen hasi ospitalean nola egongo ginen etabar... Azken ekografiak gainera ospitalean egin zizkiguten eta bertan eman ziguten mezua ere lasaitasunezkoa izan zen.

**Azkenean, eguna iritsi zen. Zer moduz joan zen? Aldaketarik egon al zen zerbitzuan?**

Erditzea baino bi edo hiru egun aurretik hasi nintzen nabaritzen jada erditze-prozesua hasia zela...

Eta esperantza nuen Alize bere kabuz etorriko zela eta horretan

jarri nuen konfiantza. Izan ere, azken ekografian esan zidaten 40.astea baino lehen ez bazen jaiotzen probokatu egingo zidatela, txikia zetorrela eta kasu horretan hobe delako aste horretatik aurrera umea kanpoan egotea. Martxoaren 27an, goizeko 8.30ean jada ordua geneukan ospitalean erditzea induzitzen hasteko... eta Alizek, ordu batzuk lehenago etortzea erabaki zuen, goizaldeko 1:40ean.

Koronabirusa dela-eta, ospitalera jada erditzearen fase aktiboan joatea komeni zela irakurri nuen... horregatik, egunean zehar kontrakzio suabeak nabaritzen hasi nintzen baina eramangarriak ziren neurrian, ez nien garrantziarik eman; hala ere, adi nengoen... eta gauean, afaldu eta Martina lokartu ondoren, kontrakzioak erregularrak izaten hasi ziren... Axi esnatu, kontrakzioen denborak baiezatu eta korrika atera ginen etxetik, eta justu justu iritsi ginen...

Maskarilla jarri zidaten eta ea arnasteko zailtasunik nuen galdetu zidaten, eta zuzenean erditze gelara eraman ninduten eta 10 minututan Alize kanpoan zegoen. Zerbitzua bikaina izan zen, lasaitasuna zegoen eta erditzea hain bizkor eta ondo joan zenez, umore puntu bat ere bazegoen. Erditze gelan ez genuen inolako aldaketarik sumatu, soilik, maskarillak jantzita eraman behar genituela.

Gero plantan ere ondo artatuak izan ginen eta ez genuen urdurita-

sun nabarmenik nabaritu. Hori bai, alta emateko garaian, bai nabaritu genuen nolabait esaten zeudela ondo bageunden, hobeto geundela etxean. Horregatik, bai umea eta bai ni ondo geundenez, alta boluntarioa hartu genuen eta egun bereko arratsalderako jada etxean geunden.

**Behin laurok etxean. Zer moduz daramazue konfinamendua?**

Laurok etxera sartzearen momentua irudikatuta genuenetik izan zenera, a ze alde! estres momentua izan zen, ospitalean egon ginez, lehenbizi egin genuen gauza arropak erantzi, garbigailua jarri eta dutxara sartzea izan zelako... birusa etxera genekarrenaren sentsazioa izan genuen eta uxatu nahi genuen gugandik! Tarte horretan noski, Alize negarrez, Martina ere egoera berriaren aurrean berea demandatzen... en fin, dena bere lekura bueltatu arte denboratxo bat pasa zen.

Ondoren, lehen asteak nahiko lasaiak izan zirela esango genuke... baina egunak pasa ahala, nekea sumatzen hasi gara eta momentu batzuetan etxea txiki eta estu geratzen zaigu. Arnas falta dugu, jendearekin egoteko gogoia dugu eta batik bat, gure familiak besarkatzekoa eta Alize ezagutu dezaten desiatzen gaude. Eta umeen beharrak ere hain ezberdinak dira, batek lasaitasuna behar du eta besteak mugimendua, etxe txiki batean horiek denak uztartzea ez da erreza egiten...





### **Errutina batzuk markatzea ona dela esaten dute. Nola antolatzen duzue eguna?**

Goizetan altxatzen gara Martinarekin. Gaua nola joan denaren araber, Idoiak eta Alizek loa gehiago luzatzen dute. Gosaldu eta eguneko planekin hasten gara. Ez dugu errutina jakin bat eramaten jolasari dagokionez, batzuetan gu gara Martinari ekintzak proposatzen dizkiogunak, eta beste askotan bere jolasari jarraitzen diogu. Ipuin pila kontatzen ari gara berak hala eskatuta, jolasak ere erabiltzen ditugu: marrastu, dantza, antzerkia... jolasaren bidez zenbatzen edo letrak erakusten dizkiogu baita, baina jolas sinbolikoan oso sartua dago eta horrekin egunaren parte handi bat ematen dugu. Hau, Alizeren etorrerak beregan izan duen eragina kolokatzeko tresna ezinbestekoa bilakatu delarik.

Errutina jatorduek eta siestak markatzen dute eta bainuak edo apar festak. Beste denbora guztia hor ari gara ahal den moduan ume bakoitzaren beharrari erantzuten, errutinatik baino gehiago inprobisaziotik eta malgutasunetik. Mo-

mentu batzuetan telebista ere erabiltzen dugu haurrentzako egokiak iruditzen zaizkigun pelikulak edo marrazki bizidunak ikusteko. Orain arte baztertu egin dugu tresna hau, baina egoera honetan deskantsurako gunea eskaintzen digu.

### **Zer da okerren daramazuena? Eta Martinak?**

Kalera ezin ateratzea. Konfinamendua baino lehen nahiko antolatua genuen egun bakoitzeko dinamika. Nor egongo zen haur bakoitzarekin une oro, deskantsu momentuak nola egin, etab.

Egoera honek dena hankaz gora jarri digu, 24 orduetan adin honetako haurren beharrak asetzea oso neketsua baita. Guzti honek koste bat du, pertsonala, bikotekoa eta familiarra.

Meditazioa, yoga eta qigong ariketak egitea ezinezkoa bihurtu zaigu. Alize jaio haurretik txandaka egiten genuen eta ihesbide zagarria ziren. Alize jaio denetik pixkat konplexuagoa bihurtu da isilune momentu horiek bilatzea, baina horretan ari gara.

Martinak lagunekin egon nahi

du. Lagunak ikusi ezin dituelako triste dagoa esaten digu askotan. Orain arte bere adineko haurrekin sozializatzen egon da goizero eta bapatean gizarte hori desagertu egin zaio. Guk nolabait kokatu dezakegu, baina ia 3 urteko haur batek nahiko lan dauka ahizpa berri baten etorrera eta bere lagunenean desageretzea kudeatzeko. Bere lagunekin egindako lotura emozionalari hutsune handiegia ematen bazaio, harremanak hoztu egingo dira eta berriro elkartzen direnean hutsune hori nabarmena izango da. Udarako oporren ondoren nabaritzen den bezala. Eta uda hau luzea izango da.

Hala ere, beste alde batetik, etxean gurekin pozik dagoela ere ikusten dugu, eta berarekin jolas-tuz gero, gustura dagoela.

### **Guzti honetatik zerbait positiboa ateratzen al duzue?**

Askatasunik ez duzunean gauza positibo gutxi atera daiteke. Guk ez dugu aukeratu egoera hau. Hala ere, mundua geratzeak eta humanoa paralizatzeak ekarri du naturak arnastea eta kutsadura murriztea. Eguneroko dinamiketara itzultzen garenean, orduan ikusiko dugu guzti honek zerbait ona utzi digun eta horri eusteko prest gauden. Bitartean pazientzia kiloka denontzat. Eta besarkada handi bat egoera honetan edozein gaixotasun duenari eta bereziki une hauetan joaten direnei eta beraien senitartekoei, nahi luketen bezala agurtzeko aukerarik ez dutelako. Animo!

### **Bukatzeke, zerbait gehitu nahi duzue?**

Egun hauetan irakurri dugu baita koronabirusa izan duten bikote baten erditzearen testigantza eta gogorra egin zaigu irakurtzea zein bakardade eta hutsune bizi izan duten. Jaio eta hil bakardadean egitea deshumanoa da. Besarkada bero bat baita egoera hau bizi izan behar dutenei.

NICOLE SCHENKER:

## «Hasieran oso estresantea izan zen»

Nicole Schenker Ameztin bizi da senarrarekin eta beraien hiru seme-alabekin. Eskola itxita, ahal duten moduan laguntzen eta lanean ari dira etxetik.

### Zer moduz daramazue konfinamendua?

Jardina dugu eta atera gaitezke, bai jolastera, bazkaltzera edo ordenagailuarekin lan egitera, benetan eskertzen da egoera honetan. Argi dago ez dela egoera normala eta badaude egunak eta momentuak gogorragoak direnak baina orohar ongi goaz.

### Umeak eskolarik gabe, zuek etxetik lanean... Nola joan zarete moldatzen?

Etxean lan egin eta batera umeetaz arduratzea benetan zaila da, ia imposiblea, eta gainera gure kasuan 3 umeekin eta hauetako batek 2 urte izanda, are eta zailagoa.

Nere kasuan, orain ERTE batekin nago lanean eta ez ditut ordu asko egiten egunean, beraz asko errezten du. Iñaki autonomia da eta etxetik egiten du lan ahal duena.

### Sarak eta Lukak eskolako lanak izango dituztela pentsatzen dut, nola moldatzen zarete beraien laguntzeko zuen lana tarteko?

Esan bezala ez da erraza, eskerrak orain ordu gutxiago egiten ditudala lan, baina hasieran oso estresantea izan zen eta errendimendu gutxikoa.

Umeek beren kabuz jardun behar dutenean zaila da, ez da beraien toki naturala, ez dira animatzen eta nolabait galduta daude klasean egon gabe, inguruan lagunik gabe eta irakaslerik gabe. Gu ahalegintzen gara, baina ez da berdina eta ez dirudite oso gogotsu.

### Eta material aldetik? ordenagai-



### luak edo dena delakoak konpartitu beharra...

Materiala ez da arazoa gure kasuan. Ordenagailu, inpresora eta internet dugu.

### Errutina batzuk markatzea ona dela esaten dute. Nola antolatzen duzue eguna?

Ezagutzen nautenek badakite ordu-tegiekin nahiko "suizarra" naizela jaja... Asteazken zeharreko egunetan rutina bat daramagu eta uste dut oso lagungarria dela guztiontzat, baita etxeko txikienarentzat ere. Altxa eta jantzi, beti bezala egiten dugu, ondoren Luka eta Sara eskolara, eta ni eta Iñaki ofizinara. Marcok brikolajea egiten du ordu horretan. Hamaiketa-koaren ondoren gorputz hezkuntza egiten dugu, Jon eta bere lankideak bidalitako linkak jarraitzen ditugu. Gero lan pixkat gehiago, bazkaldu, siesta eta arratsaldez libre... egun askotan jardinerara ateratzen gara eguraldi ona egiten badu.

### Hiru umeetatik nori ari zaio gogorrena egiten egoera?

Txikiari oso ondo etorri zaio horrela ibiltzea. Sara eta Luka antzera dabilta, lagunak faltan botatzen dituztela nabarmen da.

### Bukatzeko, guzti honetatik zerbait positiboa ateratzen al duzue?

Sarak gogo zuen egun oso bat etxean igarotzeko, pozik dabil horrekin...

Luka familian gustora dabil eta Fornitean (konsolako joku bat) asko hobetu du.

Ni pozik nago erritmo honekin, oporrak etxean.

Iñaki ere pozik dago denak familian egoteaz.

Orokorrean etxean egotea janari falta gabe, jardina, telebista, liburu era internetekin ez da hain gogorra. Hori bai, kezkatuta era berean datorrenarekin eta lehenbailehen irten eta martxan jartzeko gogoarekin.

**MARITXU ARRILLAGA:****«Guzti hau pasatzeko desiatzen nago»**

Maritxu Arrillagak 86 urte beteko ditu maiatzean. Kaxkoan bizi da senarrarekin batera.

**Zer moduz daramazu egoera?**

Osasunez gaude, beraz, ezin kexatu.

**Gogorra egiten ari zaizu etxetik ezin ateratzea?**

Bai. Gogorra egiten ari zait egoera eta guzti hau pasatzeko desiatzen nago.

**Errutina batzuk markatzea ona dela diote. Nola antolatzen duzu eguna?**

Batzuetan bazkaria prestatzen dut senarrarekin, ontziak garbitu eta etxeko lan batzuk egin.

**Konfinamendua hasi aurretik, Antiguoko Eguneko Zentrora joaten zinen Igeldoko beste batzue-**

**kin. Faltan botako duzula pentsatzen det...**

Bai horixe!!

**Zer da okerren daramazuna?**

Bilobak ezin ikusi gabiltza eta gogorra egiten zait. Zentroko lagunak ere faltan botatzen ditut.

**Erosketak egiteko edo beharrezko zerbait jasotzeko nola moldatzen zara?**

Seme-alabek egiten dute.

**Beharra duten pertsoneri laguntzeko eta adinekoentzako, "zaintza sarea" jarri da martxan Igeldon. Astero**

**deiak egiten ari omen dira laguntzarik behar duzuen jakiteko. Jaso duzu halako deirik?**

Bai. Etxera deitu izan dute. Ideia bikaina iruditzen zait eta eskertzekoa da.

**Adinekoak arriskuko herritarrak zaretela diote. Zer sentitzen duzu hori jakinda, errespetua edo ez diozu halako garrantziarik ematen? Errespetu handia ematen dit.**

**Otsaila bukaeran, Unai birloba ere jaio zen. Pentsatzen dut pena emango dizula ikusteko aukerarik ez izateak...**

Bai, bai. Pena izugarria.

**RAMONI ARRILLAGA:****«Okerrena? nire bilobak ezin ikustea»**

Ramoni Arrillagak 81 urte dauzka. Ameztin bizi da semearekin batera.

**Zer moduz daramazu egoera?**

Ondo daramat, pixka bat aspertuta baina ondo. Etxean oso ondo zainduta nago eta gainera etxe bueltan ibiltzeko aukera daukat.

**Zuen kasuan etxetik kanpo terrena badezue haizea hartzeko eta entretenitzeko, ezta?**

Bai eta gainera baratzeko lan txiki batzuk egiten ditut. Egia esanda, aukera hau izatea bentaja handia da.

**Errutina batzuk markatzea ona dela diote. Nola antolatzen duzu eguna?**

Jaiki eta etxeko txakurrak ibiltzera joaten naiz. Gosaldu eta nire gela txukuntzen dut, gero beste bueltaxka etxe inguruan. Batzuetan bazkaria prestatzen dut eta gero bazkaldu. Bazkalostea pixka bat luzatzen da. Gero egunkaria irakurri eta telebista

ikus. Berriz beste bueltaxka bat ematen dut afaldu aurretik. Afaldu eta gero, telebista ikusi eta ohera.

**Zertan aldatu da gehien?**

Ba ia egunero erosketak egitera eta lagunekin kafe bat hartzera jaisten nintzen. Orain ezin dut.

**Zer da okerren daramazuna?**

Nire bilobak ezin ikustea.

**Erosketak egiteko, botikak erosteko edo beharrezko zerbait jasotzeko nola moldatzen zara?**

Ez daukat arazo berezirik, semea bildatzen dut.

**Beharra duten pertsoneri, eta batez ere, adinekoei laguntzeko "zaintza sarea" jarri da martxan Igeldon. Astero deiak egiten ari omen dira**

**zer moduz zaudeten jakiteko eta laguntzarik behar duzuen jakiteko. Jaso duzu halako deirik? Eta zer iruditzen zaizu?**

Bai jaso ditut. Oso ondo, nire kasuan ez dut behar, baina badago jendea bakarrik bizi dena eta ez daukana gertu inor lagunduko dionik.

**Adinekoak arriskuko herritarrak zaretela diote, eta bereziki kontu gehiagorekin ibiltzeko gomendatzen dute. Zer sentitzen duzu hori jakinda?**

Errespetua sortzen dit, beldurrik ez, baina errespetua bai.

**Bukatzeko, honetatik guztitik zerbait positiboa atera al duzu?**

Familiaren maitasuna gehiago nabaritzen dut. Ezin ditudanak ikusi maiz deitzen didate.

## **PASAKO DA, BAINA...**

Osasun-krisiak ekarriko dizkigu bes-telakoak, ekonomikoa eta soziala batik batik. Urteak eta urteak lurra hondatzen, desorekak handitzen... eta birus ziztrin batek erakutsi behar gaizki ari ginela, hauskorrek garela, ez garela betirako! Zenbatetan gogoratu naiz egun hauetan munduko leku gehienetan pairatzen dituzten gabezia, goseaz, gaitz arruntak baina beraiantzat hilkorrek direnaz...

Oparotasunak itsutu gaitu, zalantzarik ez dago. Baina ikusi nahi duenak, egun hauetan badauka nora begiratu, ikusi eta ikasteko nahikoa. Natura berpiztu egin zaigu, kutsadurak beheara egin du, ibaien, itxasoen eta airearen kalitate gora egin duen bezala, fauna eta florak indartuta daude... giza-kien geldialdia tratamendu ezin hobea da Ama Lurrarentzat.

Osasun-krisiari aurre egitea ez da erraza izaten ari. Egia esan, espero ez duzuna, bat-batean kudeatu beharrak baditu bere zailtasunak. Klabea garbi eduki dute adituek hasiera-hasieratik: batetik, transmisio-modua ezagututa onena pertsona arteko kontaktua ahal den gehien murriztea. Bestetik, ahal den diagnostiko-test gehien egitea datu errealak ezagutu eta hartu beharreko neurriak hartzeko. Berandu, baina hortik jo dute agintariak, nahiz eta betikoek atzetik eta arrastaka joan behar izan duten, botere-tsuen eta ekonomia lehenesten dutenen morroi huts direla agerian utziz.

Aztertuko dira osasun aldetik krisi honek eragindako datuak. Denbora pixka bat beharko da, zuzeneko erretransmisio etenik gabeko honek, ez baitu uzten azter-

keta sakona eta serioa egiten.

Eta dagoeneko badakigu krisi ekonomikoa eta soziala izugarria izaten ari/izango dela. Krisi ekonomiko baten atarian geunden Koronabirusa azaldu zenean. Batzuek hasiak dira erru guztia birusari botatzen. Agian ez dute konturatu nahi, birusarena ondorio bat besterik ez dela, sistema bera eta eraikin dugun eredu ekonomiko eta sozial hau dela benetan egoera jasanezin honetara ekarri gaituena. Oraingo honetan kaltetuenak, berriro, klase sozial baxuenak izango dira. Eta negozio, tailer, enpresa txiki-txikiak dituztenak. Eta autonomoak.

Guzti honek balioko balu sikiera, gauzak beste modu batera egiten hasteko! Globalizazioa gutxiago, bertakoa gehiago; aberastasuna esku bakar batzuetan pilatu gutxiago, ondo banatu gehiago (hemen eta nazioarteko orekan); txikizio eta kutsadura gutxiago, eta Ama Lurrari errespetu gehiago...

Pasako da hau, baina lan asko izango dugu egiteko.

**Juan Karlos Izagirre Hortelano**

## **NORMALA BALITZ BEZALA**

COVID 19-ak sortu duen krisiaren erdian, politikarien nahiz kazetariaren ahotan bolo bolo ari gara entzuten "normaltasun berria" edota "berreraikitzea" bezalako kontzeptuak. Ustez desiragarria krisiaren aurreko garaia berreraikitzea delakoan. Orain 6 asteko mundua normala balitz bezala.

Normala balitz bezala gehiengo baten bizkar gutxiengo bat geroz eta aberatsago izatea; normala balitz bezala etorkizun hobe baitan

bila Europara iritsi nahian urtero milaka pertsona itsasoan hiltzea; normala balitz bezala lan berdina egiteagatik emakumeek gizonetok baino 3 aldiz gutxiago kobratzea edota emakume izate hutsagatik modu eta molde ezberdinetako erasoak jasan behar izatea; normala balitz bezala sistema publikoan (orain hainbeste gorai patzen den osasungintzan adibidez) etenik gabe murrizketak egitea, nora doan inork ez dakien Abiadura Handiko Tren batean dirutza gastatzen ari diren bitartean; normala balitz bezala etenik ekonomiko mugagabeen mesedetan Amalurra suntsitzea; normala balitz bezala Zaldibarren gertatutakoa; normala balitz bezala oraindik ere Euskal Herrian 236 ohe huts egotea; normala balitz bezala Euskal Herritarrok gure etorkizuna libre eta demokratikoki erabakitzeke eskubiderik ez izatea.

Ba ez, COVID 19-aren aurreko mundua ez zen inondik inora ere normala eta post-COVID 19 mundua ere ez da hala izango (kontraktorik egin ezean behintzat). Nekez izango baita ona, gaizki eraikia zegoena berreraikitzea. Batzuek "normaltasun berria"ren eta "berreraikitzea"ren aitzakipean, ezberdintasunak iraunarazi eta ezberdintasun horiek are eta handiagoak izatea besterik ez dute nahi.

Krisi hau aukera gisa ere ikus genezake, ordea. Beste modu batera pentsatu eta ekiten hasteko. Akaso berreraikitzea baino transformatzea baita orain tokatzen dena. Ustez hain "normala" ez dena egin, eta munduari beste norabide bat ematea: justuagoa, orekatuagoa eta libreagoa.

**Xabier Iraola Larraia**



**IGELDOKO  
HERRI  
KONTSEILUA**

Itsas Aurre Kultur Etxea  
Igeldoko plaza 4, 20008 Igeldo  
Tfona. 943 313 030  
Emaila: igeldokoorria@gmail.com



Laguntzailea **Donostiako Udala**